



EUSKADIKO HAURREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA

Haurrek eta nerabeek EAEko erabakitze–prozesuetan duten
parte–hartzeari buruzko txostena

2013ko otsaila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

KOORDINATZAILEA
Eva Silván

IKERKETA-TALDEA
Iñaki Pinedo
Teresa Roca



Save the Children Euskadin

Manuel Iradier kalea 22, Bulego 1
01005 Vitoria-Gasteiz

T: (+34) 945 13 43 68

F: (+34) 91 552 32 72

www.savethechildren.es | [@SavetChildren](https://www.instagram.com/SavetChildren)



EUSKADIKO HAURREN
PARTE-HARTZEARI BURUZKO
TXOSTENA

Haurrek eta nerabeek EAEko erabakitze–prozesuetan duten
parte–hartzeari buruzko txostena

2013ko otsaila

AURKIBIDEA

7 AURKEZPENEA

9 METODOLOGIA

11 ESPARRU KONTZEPTUALA

13 LEGE-ESPARRUA

15 HAURREN PARTE-HARTZEA EUSKADIN

15 Haurren eta nerabeen parte-hartzearen esparruko zuzeneko hezkuntza- eta sentiberatze-ekintzak

22 Haurren eta nerabeen parte-hartzearen esparruko zeharkako ekintzak

33 Eskolako parte-hartzea

41 HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA BEREN IKUSPEGITIK

42 Haurren ustez, zer da parte-hartzea?

43 Parte hartzeko eskubidea barneratzea

45 Parte-hartze esparruak

47 Parte-hartzearen inguruko usteak eta esperientziak


49 Parte-hartzearen aurreko jarrerak

51 Parte hartzeko orduan norberak sentitutako hesiak

52 Parte hartzeko tresnak ezagutzea

55 ONDORIOAK

57 AHOLKUAK



**Parte-hartzearen ADNa,
Save the Childrenen arabera**

I. AURKEZPENA

Honako txosten hau Save The Children erakundeak Invesco Mirugain etxearekin lankidetzan egin duen ikerlan bat da, Eusko Jaurlaritzak finantzatutakoa. Euskadiri eta 2012. urteari dagokio lana, eta Euskadiko haurren parte-hartzearen esparruko sustapen- eta hedapen-proiektuetan Save the Children egiten ari den lanaren zati eta jarraipen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eta arlo horretan eskumena duten erakunde publiko eta pribatuek haur eta nerabeen parte-hartzearekin lotuta abian jarri dituzten esperientzia eta praktika nagusiak ezagutaraztea du helburu txostenak. Eta teknologia berriekin lotutako esperientzia berritzaileen berri ere eman nahi du. Horretarako, hezkuntzako profesionalei nahiz arlo honetan eskumena duten administrazioko profesionalei galdetu zaie, eta 16 eta 17 urteko neska-mutilei ere galdetu zaie. Egindako landa-lanari esker, gaur egungo egoera eta Euskadin ditugun baliabideak aztertu ahal izan dira, eta euskal erakundeei zuzendutako zenbait gomendio ere landu dira.

Euskadin arlo honetan eskumenak dituzten erakunde publiko eta pribatu guztien agendan bilduta dagoen gai garrantzitsua da haur eta nerabeen parte-hartzea. Eusko Jaurlaritzaren Haur eta Nerabeen I. Planaren Esparru Dokumentuan ere jasotzen da, eta, bertan, parte hartzeko ildoen barneko estrategia orokorretako bat zera da: "haur eta nerabeei dagozkien esparru sozial eta instituzionaletan berorien parte-hartzea sustatzea, prozesuak zainduz eta irizpide komunen ezarpena arautuz". Estrategia hori onartua dute beste erakunde publiko batzuek ere, hala nola hiru probintzietako foru-aldundiek eta udalerrri nagusiek.

EAEn hurrek parte hartzeko ekintzak sustatzerakoan aurrerapenak egin badira ere, oraindik badago zer eginik esparru horretan.

Haurren ikuspegia administrazio maila guztien gobernu-ekintzetan txertatzea helburu duten zuzeneko ekintzak nahiko maila ahulean ezarri dira oraindik gure inguruan: horixe jarri dute agerian ikerketa honen emaitzek. Behar-beharrezkoa da administrazioen eta gizarte-erakundeen artean haurren eta nerabeen parte-hartzean oinarritutako kultura sustatzea. Behar-beharrezkoa da esparru desberdinetan parte-hartzea bultzatzen irakastea; eta, horretarako, familiak, hezkuntza- eta gizarte-eragileak eta erakundeak prestatzera eta heztera zuzendutako ekintzak jarri behar dira abian.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetarako zenbait gomendio zehatz ere proposatu ditu hemen Save the Children erakundeak, ikuspegi analitiko bat hartuta Euskadin haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzeko eta indartzeko programak, ekintzak eta estrategiak garatzeko proposamenak lantzerakoan lagungarri gerta daitezten eta zeregin hori orientatzen, lurralde bakoitzeko haurren, nerabeen eta horien familien gizarte-, kultura- eta hizkuntza-errealitateetara egokituta, betiere.

2. METODOLOGIA

Txostena osatzeko, hainbat lan eta metodologia garatu dira, erabakitze-prozesuetan parte hartzearekin lotuta garatutako praktiken ikuspegi sintetikoa lortu ahal izateko.

Lan eta zeregin horien funtsa zera izan da: modu irekian edo galde-sorten bidez elkarrizketak egitea, eta parte-hartzearekin lotutako alderdiei buruzko material dokumentalen multzo garrantzitsua biltzea.

2012ko azaroan eta abenduan egin dira lan horiek, eta analisiaren esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintziek osatu dute (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).

- Dokumentuen azterketa: lan honetarako, aurretiaz landuta dauden txostenak eta kontsulten emaitzak bildu eta aztertu dira, bai eta haurren eta nerabeen parte-hartzearen esparruko Euskadiko legedia eta eskumenen mapa ere.
- Elkarrizketak: lehenengo, haurren eta nerabeen arloan eskumenak dituzten erakundeak identifikatu ziren: udalak, ikastetxeak, Eusko Jaurlaritza, diputazioak, Arartekoa... Gero, erakunde horietako teknikariek edo karguekin harremanetan jarri ziren, parte-hartzearekin lotuta abian jarritako praktikei buruzko informazioa biltzeko eta parte-hartzearen esparruko ikuspegi teoriko-kontzeptualagoa ere jasotzeko.

Udalei dagokienez, 60 udalerni baino gehiagorekin harremanetan jarri dira, eta elkarrizketak egin dira (telefonoz eta aurrez aurre) 40 udalerritako langile teknikoekin. Haurren eta nerabeen parte-hartzearekin lotuta ikastetxeetan garatutako bizipenen identifikazioari dagokionez, galdetegi erdiegituratuen bidez bildu da informazioa (galdera irekiak eta erantzun itxi edo sistematikoko galderak, biak, erabili dira). 100 ikastetxe baino gehiagorekin jarri dira harremanetan, eta 22 ikastetxetako erantzunak jaso dira.

	Parte hartu duten ikastetxeak		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Ikastetxe publikoak	2	4	6
Itunpeko ikastetxeak	1	3	6


Haurrek eta nerabeek egin duten lana garrantzi handikoa izan dela ere nabarmendu behar da: aldi berean, 16 elkarrizketa egin dira binaka (36 pertsona elkarrizketatu dira, 25 neska eta 11 mutil). Kasu batzuetan, taldean elkarrizketatutako lagunak hiru izan dira (bitan), edo lau (behin), beste bikote bat ezin osatu zelako edo hitzartutako tokian lau lagun aurkeztu direlako eta laurek batera egon nahi zutelako.

Binakako elkarrizketa horietan erabili den metodologia, bikote bakoitza elkarrizketatzerakoan erabili dena, zera izan da: aldi berean elkarrizketa sakon bat egitea bi laguni ikerketaren xede den gaiaren inguruan, hots, parte-hartzearen eta horrekin lotutako alderdi guztien inguruan antzeko bizipenak dituzten bi laguni elkarrizketa egitea. Ez zuten sexu berekoak izan beharrik, edo ez zuen axola elkar ezagutzen bazuten eta elkarrekin harremanak bazituzten ere. Binakako elkarrizketen helburua bien artean oroitzeko bideak erraztea eta elkarrizketa egiten ari zenarekin elkarrizketa izateko aukera ematea zen, baina baita elkarrizketatuen beraien artean kontrasteetarako aukera ematea ere, oroitzeko eta adostasuna / desadostasuna agertzeko modua emango zuen hurbilko giroa ziurtatuz.

3. ESPARRU KONTZEPTUALA

3.1. ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN HAUREK ETA NERABEEK DUTEN PARTE-HARTZEAREN DEFINIZIOA

Parte-hartzea prozesu gisa ulertzen du Save the Children erakundeak; zehazki, halakotzat hartu behar da, parte hartzeak berak parte-hartze maila desberdinak eskatzen dituela jabetzeko. Bestalde, haurren inguruko ekintza-esparruan, balioetan oinarritutako hezkuntzarako funtsezko elementutzat hartu behar da. Ez dugu joko inolako parte-hartzerik DESEGOKITZAT; baina gerta daiteke, parte-hartze prozesu bateko subjektuen arabera, berori ezin garatu izatea bere estadio gorenean, pixkana baizik; beraz, ikasteko eta banaka eta taldean hazten joateko prozesu bat izango da, funtsezkoa haurraren garapenari begira. Dena den, gure misioak parte-hartze prozesuen aurrerabide egokia zaintzera behartuko gaitu¹. Lau faktore hartuko ditugu aintzat: inplikazioa, informazioa/kontzientzia, erabakitze gaitasuna eta konpromisoa/erantzukizuna. Horietako bakoitza maila batean edo bestean gauza daiteke, eta, berorien bat egiteak emango duen emaitzaren arabera, parte-hartze handiagoaz edo txikiagoaz hitz egin ahal izango dugu.



Ikuspegi intrintsekoa: Parte-hartze mailak / adingabearen esku-hartzea (J. Trilla eta Ana Novela pedagogoen planteamenduetan oinarrituta): “Parte-hartze sinplea, parte-hartze aholku-emailea, parte-hartze proiektiboa eta parte-hartzea helburu.”

Ikuspegi estrintsekoa: helduen ikuspegitik sortutako parte-hartze mailak eta espazio horiek adingabeei begira nola sortzen diren ikustea (R. Hart-en planteamenduetan oinarrituta): “Parte-hartze manipulatu, apaingarria, sinbolikoa, esleitu baina ez informatua, informatu-kontsultatu, informatu-kontsultatu-partekatua, propioa: pentsatu-gauzatu, propioa: pentsatu-partekatua.”

¹ Bereziki eta nahiz eta eredu batek bestea barnean hartu, gure esku-hartzean erabiliko dugun eredu gertuago dago Bartzelonako Unibertsitateko pedagogoa Jaume Trilla eta Ana Novela jaun-andreen planteamenduetan oinarritutako eredutik.

3.2. OINARRI METODOLOGIKOAK

Parte-hartzearen ikuspuntu programatiko koherente eta bateragarrian sinesten dugu, bai garapen-ikuspegi metodologikotik eta bai laneko edukiaren ikuspegitik.

- ZEHARKAKOA. Metodologia gisa: zeharkako egitura eta ekintzetan, bigarren mailakoetan, oinarrituta; programetan edota ekintzetan ezarriko direnak dira. Horrela, proiektu edo ekintza baten barrenean, parte hartzeko egiturak sortuko dira, baina beroriek proiektuaren osagaiak direla ulertuko da, eta beste langai batzuetan beste helburu batzuk lortzera zuzendu ahal izango dira.
- ZUZENEKOA. Eduki/gai gisa: lehen mailako egitura bertikaletan oinarrituta; berariaz programak edota ekintzak garatzea ekarriko du².

Printzipio Gidariak: Haurren partaidetzarako estandarrak³

1. estandarra: Ikuspegi etikoa: gardentasuna, zintzotasuna eta erantzukizuna
2. estandarra: Haurren parte-hartzea egokia eta garrantzitsua da
3. estandarra: Ingurune mesedegarria eta adiskidetsua haurrentzat
4. estandarra: Aukera-berdintasuna
5. estandarra: Langileek eraginkortasunez eta konfiantza giroan lan egiten dute
6. estandarra: Parte-hartzeak haurren segurtasuna eta babesa sustatzen ditu
7. estandarra: Jarraipena eta ebaluazioa ziurtatzea

Ikusmoldea

“Parte-hartzea zerbaitetan esku hartzea da, zerbait hori modu aktibo eta eraikitzailean aurrera eramateko”

² Balio hezitzaileen garapena kultura demokratikoan, talde-lana, errespetua eta komunikazio aktiboa, gatazken ebazpena eta erabakiak hartzeko taldeko egiturak.

³ Puntu hau ez garatzea izango dela onena pentsatu dugu, aurreko dokumentu bat hemen erreproduzitzea eskatzen baitu; indarrean dagoen barne-dokumentu bat da, jada erabiltzen dena.

4. LEGE-ESPARRUA

Haurrek parte hartzeko duten eskubidearen iturri nagusia Haurraren eskubideei buruzko Konbentzioa da (1989/11/20), Nazio Batuen Elkarteko herrialde guztiek sinatutako nazioarteko ituna, alegia⁴. Bertako artikuluen sortatik, hauek azpimarra daitezke: 5. artikulua (haurren ahalmenei buruzkoa), 9.a (adingabeen parte-hartze juridikoaren oinarria), 12.a, 13.a, 14.a, 15.a, 16.a, 17.a (iritzia adierazteko eta parte hartzeko moduak), eta 29.a (demokraziaren eta giza eskubideen errespetua).

Berriena Europako Konstituzioa da: 84. artikulua, 3. tituluko 2. atala, Haurraren Eskubideei dagokiena. Bertan, haurren adierazpen-askatasunaz dihardu, berorren heldutasuna eta adina aintzat hartuta, betiere, eta adingabearen interes gorenaren kontzeptua txertatzen du, edozein ekintzatan lehentasunez aintzat hartu beharreko alderdizat hartuta.

1978ko Espainiako Konstituzioan ere badu kontu honek oinarriak, 10, 23.1 eta 48. artikuluetan eta II. kapitulu osoan, Espainiako Estatuan herritar izaeraren oinarriak ezartzen baitira, eta baita beroriek parte hartzeko duten eskubidea ere, sufragioari dagokionean izan ezik gainerako kasuetan haurra kanpoan utzi gabe, noski.

Euskal Autonomia Erkidegoa: Gernikako Estatutuak zera dio Atariko 9. artikuluan: "Euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan: [...], Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte alorretako bizitzan hiritar guztien parte-hartzea erraztuko dute".

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak xedatzen du euskal botere publikoek dutela haurren eta gazteen arloko politikak garatzeko eskumena.

- 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa.

Bertako xedapen orokorretan, informazioa eskuratzeko eskubidea eta parte hartzeko eskubidea biltzen dira. 5. artikuluan, administrazio-jardueren printzipio gidariei buruzkoan, parte-hartzea sustatuko dela adierazten da berariaz: "Haurrek eta nerabeek tolerantzia, elkartasuna, errespetua, berdintasuna, erantzukizuna, parte-hartzea eta, oro har, gizarte-elkarbizitarako printzipio demokratikoen balioak beregana ditzaten sustatu behar dute.

Zehatzago esanda, haur eta nerabeen eskubideei buruz legeak dio eskubidea dutela beren eskubideei buruzko argibideak jasotzeko; beren norbanakoaren eskubideak eta eskubide kolektiboak errespetatu ditzaten, batez ere parte-hartzekoa. Eta ildo horretatik: hauxe dio hitzez hitz: Adingabeek eskubidea dute beren elkarbizitzagune

⁴ Estatu Batuak eta Somalia ez zaizkio atxiki oraindik, nahiz eta ituna sinatu zuten, hurrenez hurre 1995ean eta 2002an.

hurbilenetan erabat parte hartzeko, eta, bidenabar, beren inguruneko bizitzaren arlo hauetan ere: gizartearen, kulturaren, artearen eta jolasaren arloetan; eskubidea dute, orobat, apurka–apurka herritartasun aktiboan sartzeko, nor bere garapen–mailaren arabera.

Hezkuntzaren esparruan, haurrek eta nerabeek beren hezkuntza–prozesuan eta ikasleen elkarteetan parte har dezaten bultzatu beharra dagoela ere zehazten da

- Euskal Autonomia Erkidegoan Haur eta Nerabeentzako Plana Lantzeko Esparru Programa

Tresna garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoan Haur eta Nerabeentzako Plana Lantzeko Esparru Programa (Eusko Jaurlaritza, 2012) ere; programa horrek, bertan zehaztutako lau ildo estrategikoen barnean, parte-hartzeari zuzendutako ildo zehatz bat zehazten du:

4. ildoak:

Haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatzea, herritartasun aktiboa sustatzeko: Parte hartzeko printzipioak planteatzen du haur eta nerabe guztiek beren ingurunean zeregin aktibo eta nagusia betetzeko eskubidea dutela, eta, beren gaitasunak garatzen doazen heinean, beren iritzia osatzeko eta askatasunez adierazteko prestatu behar dute. Parte-hartze hori familian, erakundeetan, ordezkari–organo akademikoetan, elkarteetan eta abarretan nabarmen ikusi behar da.

Jarduteko esparru–dokumentu horrek argi uzten du EAEn oraindik nahiko hasi berriak direla haurren eta nerabeen parte-hartze egonkorrerako sortutako erakundeak, izaera finkoa izateko xedez eratutakoak.

Hauek dira zehaztu ditugun proposamenak, Save the Childrenen ustez erreferentzia gisa har daitezkeenak:

- Haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea
- Parte hartzeko abian diren ekimenak ezagutaraztea eta koordinatzea, erakundeen antolamenduari maila desberdinetan erantzuteko aukera emango duen parte-hartze egitura bat sortzeko/lortzeko
- Parte hartzeko organo eta guneen sorrera babestea eta berorien funtzionamendua indartzea

5. HAURREN PARTE-HARTZEA EUSKADIN

5.1. HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEAREN ESPARRUKO ZUZENENKO HEZKUNTZA- ETA SENTIBERATZE-EKINTZAK. PARTE- HARTZEAN OINARRITUTA HEZTEA

Parte-hartze motak deskribatzera zuzendutako atalean adierazi dugunez, bi parte-hartze mota bereiz daitezke ikuspegi funtzionaletik: parte-hartzearen esparruko zuzeneko ekintzak eta zeharkako parte-hartze metodologikoa. Kapitulu honetan, parte-hartzearen esparruko zuzeneko ekintzetan oinarritutako EAEko programak deskribatu dira.

Parte-hartzearen esparruko zuzeneko ekintzek gobernuaren jardunean haurren ikuspegia txertatzea dute helburu, administrazio maila guztietan. Kudeatzaileek adingabeen interesak kontuan har ditzaten lortu nahi du, baina ez hori bakarrik: haur eta nerabeek beren adierazpenetan eta ezaugarritzean ere esku har dezaten lortu nahi du.

Mota horretako ekintzen helburuen artean, hauek bereiz daitezke⁵:

1. Haurrei eta nerabeei parte hartzeko eta iritzia emateko bidea emango dieten zuzeneko prozesuak sustatzea, prozesu demokratikoak gerturatuz eta politikaren eta herritartasunaren esparruan parte hartzeko ereduak sortuz.
2. Haurrei eta nerabeei dagokienez, politika eta aurrekontu publikoetan, txostenen lanketan eta Haurraren Eskubideekin lotutako gaien jarraipenean eragitea.
3. Erakunde politikoei (tokikoei, eskualdekoei eta estatukoei) haurren eta gazteen parte-hartze esperientziak ezagutaraztea
4. Haurren eta nerabeen inguruko helduak (gurasoak, hezitzaileak...) sentiberatzea eta prozesuetan esku hartzera bultzatzea

Jarduera horien artean, hauek aipa daitezke: haur eta nerabeen parte-hartzerako kontseiluak, udal-foroak, haur eta nerabeen elkarteak ahalduentzeko programak...

la erakunde guztiek garatzen dituzte haurrei eta nerabeei zuzentzen zaizkien jarduerak, udalerriek batez ere. Aisialdi, kultura nahiz hezkuntzako programak izan ohi dira normalean; dena den, gutxi dira zuzeneko partaidetzarako programak abian jarri dituztenak.

⁵ "Estrategia de participación Posicionamiento estratégico". Save the Children, Espainia 2012/05/23.

5.1.1. Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

Parte hartzeko, kontsultatzeko eta aholku emateko organoa da, eta berorren eginkizun nagusia Arartekoari aholku ematea da, haurren ahotsa eta iritzi eta proposamenak Arartekoari helaraztea, batik bat adingabeei modu zuzenagoan eragin diezaieketen gaietan edo ekimenetan.

- **Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua**

Nork parte hartzen duten: zenbait hezkuntza-zentro laguntzailetako 12 nerabek.

Noiz: hiru hilean behin egiten dira bilerak.

Non: Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren deialdian zehaztutako tokian.

Zertarako: Arartekoaren organo aholku-emailea da.

KONTSEILUAREN HELBURUAK

- Arartekoak erakundeei edo Eusko Legebiltzarrari berari egiten dizkien proposamen, ebazpen edo txostenetan, adingabeen ikuspegia ere txertatu ahal izatea.
- Beraien eskubideez eta parte hartzeko eta defendatzeko dituzten baliabideez duten iritzia jaso ahal izatea.
- Haiekin kontrastatu ahal izatea Arartekoak haurrei buruz egin nahi dituen ekimenak, proiektuak, material didaktikoak...
- Haur eta nerabeei ardura zaizkien edo beraien eskubideak defendatzearekin zerikusia duten gaiak direla eta, beraien iradokizunak, proiektuak edo jarduera-ildoak jasotzea.

NORK OSATZEN DUTE?

Hauek osatzen dute kontseilua:

- DBHko ikasle diren 6 neska eta 6 mutilek (2 Arabakoak, 6 Bizkaikoak eta 4 Gipuzkoak); gaitasun kritikoa, sormena, empatia, hausnartzeko, kideen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko gaitasuna etab. dituzte.
- Arartekoak aukeratutako ikastetxe batzuek hala proposatuta izendatutakoak dira, ikastetxe horietan parte hartzeko dauden dinamika eta proiektu honetan laguntzeko prestutasuna kontuan hartuta.
- Bi urtean behin berritzen da.

LAN-DINAMIKA

Aurrez aurreko bilerak beti eskola-ordutegitik kanpo egiten dira, eta ahalik eta gehien murrizten dira bilerak (bat edo bi hiru hilean behin) eta joan-etorriak. Bileren osagarri, kontseiluko kideek "etxeko lana" egiten dute. Horretarako, ahal den neurrian, teknologia berriak erabiltzen dira: bilera egin aurretik galdera-sortak bidali; informazioa bilatu; proposamenak trukatu; bilera-deiak egin; aktak igorri, laneko foroa egin...

5.1.2. Udal-kontseiluak

Euskal Autonomia Erkidegoan, soilik hiru udal aurkitu dira parte hartzeko egitura aholku-emaileak dituztenak.

- **Donostiako Udala > Proiektuaren izena: Entzunaldi Publikoa**

Nork parte hartzen duten: ikastetxeetako eta aisialdiko jardueretako neska-mutilek, 14 urtetik 17ra bitartekoek.

Noiz: urtean behingo dinamikak dira (2002tik 2011ra egin dira, eta gaur egun berrikusten ari dira).

Non: hezkuntza-zentro laguntzaitatik garatutako dinamiketatik abiatuta.

Zertarako: udal-politiken definizioan haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko

Entzunaldi Publikoa:

Donostiako Udalak, herritarren partaidetzarako sailaren bidez, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zenbait partaidetza-proiektu sustatzen ditu.

Gai zehatz baten inguruko lan-ildo batetik abiatuta garatzen da proiektua, udal-politiken definizioan herritar gazteenen parte-hartzea sustatzeko. Ikasturtean zehar, hautatuko gaiari egokitutako zenbait lan-dinamika ezartzen dira, eta, amaitzeko, komunikazio-ekintza bat gauzatzen da, eta harremanetan jartzen dira zuzenean udal-agintariekin. Entzunaldi Publiko horietan, neska-mutilek bere iritziak, eskariak eta proposamenak aurkezten dituzte, udalak proposatutako gai jakin baten inguruan.

Prozesu bat garatzean datza, eta, prozesu horren amaieran, eskariak egin eta konpromiso zehatzak hartzen dituzte; bide horretatik, hiriaren bizimoduan oihartzuna izan dezan ahalegintzen dira. Gaiak orokorrak direnean parte-hartzea aktibatzeko eta zehazteko zailtasunak izaten direla egiaztatu ahal izan da.

- **Vitoria-Gasteizko Udala > Proiektua: Lagunkide- Hirikoak**

Nork parte hartzen dute: Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailako neska-mutilek.

Noiz: hilean bi egunetan, eskola-orduetan.

Non: ikastetxean.

Zertarako: eskubideak eta ardurak sustatzea du xede, bai eta haurrei eta nerabeei dagozkien gaietan gizartearen aitortpena erdiestea ere, berorien presentziaren bidez

“Hirikoak”

Parte hartzeko gune bat da, neska-mutilak ahalduentzea, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, beren ahotsak eta iritziek duten balioaz jabetzea eta beren errealitatea aldatzeko duten gaitasunaz eta aukeraz ohartzea ahalbidetzen diena. Epe luzera begirako prozesu bat da, parte-hartzearen esparruko hainbat alderdi latzen dituena; eta haurren eskubideetan sakontzen da, betebeharren inguruan eztabaida egiten da, eta nola eta noiz parte hartu aztertzen da.

Parte-hartzaileak: 3. eta 4. mailetako neska-mutilak; gaur egun, hiru ikastetxek parte hartzen dute. Vitoria-Gasteizko ikastetxe guztiei egiten zaie jarduera honetan parte hartzeko eskaintza, Hezkuntza Agendaren bidez.

“Hirikoak” proiektuaren antolamendua ikastetxetik kanpoko esparruetara zabaldu nahi da, Gizarte Etxeen bidez; esparru horretan, esperientzia bat garatu zen Aldaben, 2010ean.

HELBURUA

Neska-mutilek parte hartzea, eta haien ahotsa eta iritziak helduek eta erakunde publikoek aintzat har ditzaten lortzea. Hirikoak proiektuaren azken xedea Haur eta Nerabeen Partaidetzarako Organoa sortzea da; neska-mutilek zuzendutako lukete erakunde hori, eta beraiekin lotutako gaiak aztertuko lituzkete bertan, eta aldatzeko eta hobetzeko proposamenak gauzatzeko lituzkete.

METODOLOGIA

Jolas-izaerako dinamiken bidez, neska-mutilek elkarrekin lan egiten eta elkarrengan konfiantza izaten ikasten dute, talde-lanaren garrantziaz jabetzen dira, eta jendaurrean hitz egiten jakiteak, modu aktiboan entzuteak, besteen iritziak entzuteak, haien iritzi eta ideiak baliozkoak direla ezagutzeak eta beroriek adierazi ahal izateak duen garrantziaz ere jabetzen dira. Dinamika horiek hilean bi egunez lantzen dira, eskola-orduetan, 50 minutuko saioetan; eta tutore batek parte hartzen du berorietan.

Saio horiek amaitzean, Hirikoak proiektuko neska-mutilak Alkatearekin eta talde politikoekin biltzen dira, egin dutena kontatzeko, neska-mutilek beraiei dagokien gauza orotan parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzeko eta ikustarazteko eta, proposamenik izanez gero, beroriek aurkezteko eta erantzun bat emateko eskatzeko.

Horrez gain, Hirikoak proiektuko ikastetxeetako neska-mutilek “bizipenak trukatzeko” topagune batean parte hartzen dute, eta prozesua ebaluatzen dute. Topagune hori nahiz erakunde publikoarekiko bilera Hirikoak-eko neska-mutilek diseinatzen dute, ahal den neurrian.

• **Leioako Udala, Bizkaia > Proiektua: Herrigune, Haurren Kontseilua**

Nork parte hartzen duten: 10 urtetik 14ra bitartek neska-mutilek.

Noiz: hilean behin, eskola-orduetan.

Non: ikastetxeen bidez antolatzen da, eta bilerak udaletxean bertan edo beste toki batzuetan egiten dituzte.

Zertarako: alkateak “laguntza eskatzen du”. Hurrengo bileretan, kontseiluak emango duen erantzuna pentsatuko du, kontu horrek izan ditzakeen irtenbideak eta proposamenak ikertzen ditu..., berriro alkatearekin bildu bitartean.

Leioako Herriguneko Komunitate Ekintza Hezitzaileak herrian hezkuntzaren esparruan garatutako esparru-programa baten zati dira, eta gizartearen ikaskuntzarako eta hazteko guneak eratu nahi dira programa horren bidez, Leioako herritar guztien eta bakoitzaren gaitasunak gararaziz eta partekatuz. Programaren ardatz nagusietako bat parte-hartzea da, eta berorren barneko egituren artean dago Haurren Kontseilua ere.

Haurren Kontseilua:

10 urtetik 14ra bitarteko haurren taldea; alkatearekin batera arazoak eta udalerriko

proiektuen garapenaren berri ematen du. 20 laguneko taldea osatzeko (bi lagun ikastetxeko), zozketa egiten da parte hartu nahi izan dutenen artean. Kontseilua hilean behin biltzen da eskola-ordutegian udaletxean bertan edo beste tokiren batean, egin beharreko lanaren arabera: Gaztegunean, Kultur Leioan. Kontratututako autobus bat ikastetxez ikastetxe joan ohi da, ikasleak udaletxera eramateko.

Bilkuren aretoan egiten dira bilerak, edo udaletxeko beste aretoren batean. Hurrez gain, alkateak eta Solasguneko hezitzaileek ere parte hartzen dute. Ordu eta erdi irauten du gutxi gorabehera bilerak.

Lehen bileran (idea baten inguruan lan egiten da denboraldi batean, urtebetean, adibidez, baina ez dauka urte osoa hartu beharrik; gaur egun, parke baten diseinuan ari dira lanean), alkateak proposamenak egiten ditu, eta laguntza eskatzen du. Hurrengo bileretan, kontseiluak erantzunen inguruan pentsatzen du, zer soluzio eta proposamen aurkez daitezkeen ikertzen du..., alkatearekin berriro bildu bitartean.

Lanak garatzeko orduan, laguntza teknikoa eta dinamizaziorako laguntza izaten dute.

PARTE-HARTZAILEEN TIPOLOGIA

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleek parte hartzen dute kontseiluan. Solasguneko hezitzaileek prozesu osoaren jarraipena egiten dute, haurrei eta alkateari lagunduz.

5.1.3. Zenbait ohar haur eta nerabeen parte-hartzearen esparruan garatzen diren zuzeneko hezkuntza- eta sentiberatze-ekintzei buruz; parte-hartzean oinarrituta heztea

Haurrei eta nerabeei zuzenduta abian jarri diren parte-hartze organo instituzionalak edo kontseiluak garrantzi handiko prozedura eta bizipenak garatu dituzten proiektuak dira.

Haurrek balioespen positiboa egiten dute jarduera horietaz. Elkarrekin topo egiteko eta besteak ezagutzeko guneak direla nabarmentzen dute. Zenbait ikastetxetako neska-mutilak elkartzen direnean, parte hartzen dutenek bizipen positiboak izaten dituzte gizarte-harremanetarako gaitasunen arloan, ezagutzen ez dituzten pertsonekin eta kulturaren, jatorriaren edo pentsamoldearen ikuspegitik desberdinak izan daitezkeenekin hitz egiteko lagungarri gertatuko zaizkien ohiturak lantzen dituzte...

Berorien funtzio nagusia parte-hartzea praktikatzu parte hartzen irakastea da, bai eta erakundeen jarduera umeengana hurbiltzea ere; neska-mutilek eta nerabeek jendaurrean moldatzen ikasten dute, eta udalaren funtzionamendu-sistemak gehixeago ezagutzen dituzte (erakundeen eskumenak, udaleko osoko bilkura, langile teknikoak...); proposamenak formulatzen lan egiten da, kontraste eta elkarriketarako gaitasunak barneratzen dira, eta, finean, parte hartzeko oinarritzko mekanismoak gehixeago ezagutzen dira.

Hiriko aginteguneak agerian jartzen dituzte proiektu horiek, eta parte-hartze prozesuan parte hartu duten pertsonen egindako eskariei erantzun egokia emateko eskatzeko

eskubidean hezten dute. Gardentasun-printzipioa eta agintariak erantzuna emateko duten betebeharra sustatzen dira horrela.

Izaera sinboliko instituzionaleko ekitaldiek, hala nola udaleko osoko bilkurek edo ordezkari politikoekiko bilkurek, erakundeak agerian jartzeaz gain, funtzio positiboa betetzen dute; eta parte hartzen ari diren haurrek ere balioespen positiboa egiten dute beroriez, parte-hartze prozesuak halako hotsanditasun-elementu batez hornitzen baitituzte.

Hala ere, behar-beharrezkoa da parte hartzeko praktika hori jarraipena duten esperientzia positibo indartzaileekin batera garatzea, aldi behingo esperientzia huts izango baitira bestela, eskolako ariketa hutsak. Kasu batzuetan, horrelako esperientziak ezagutzen dituzten nerabe zaharrenek ez dute interesik erakusten horrelakoen aurrean, eta aurrez izan dituzten esperientzia negatiboen ondorio izan daiteke hori, parte-hartzearen aurrean frustrazio-sentimenduak eragin baitituzke horrek nolabait.

Baina, kasurik gehienetan, interes-falta parte hartzeko horrelako egiturak badirela ez dakitelako gertatzen da. Txosten hau egiten parte hartu duten neska-mutilekin egindako elkarrizketetan, galdetu zitzaion ea bazekiten adingabeek udaleko gaietan parte hartzeko aukerarik bazuten, eta, erantzunetan, kontzertuetan, jaietan, aisialdiko jardueretan eta horrelakoetan izan zezaketen parte-hartzea aipatu zuten. Iritzien atalean, ez da zuzenean parte hartzeko esperientziarik identifikatu.

Zenbait kasutan, kexa eta iradokizunak aurkezteko sistemak identifikatu zituzten. Gainera, kontuan hartu behar dugu elkarrizketatutako pertsona gehienak haurren parte-hartzerako foro eta kontseiluak dituzten herrietan bizi direla (Gasteiz, Barakaldo, Donostia, Agurain) edota eskolako/udaleko parte-hartze esperientziak landu dituzten zentroetan dabilzala (Eskolako Agenda). Gehienek ez dute identifikatu haurrei eta nerabeei parte hartzeko aukera ematen dien tresnarik beren herrietan. Elkarrizketa batean aipatu dituzte soilik Haurren Parlamentuko osoko bilkurak edo udalekoak (mutikoetako bat Eskolako Agendako ekitaldi batera joan zen behin, duela zenbait urte).

5.1.4. Nabarmendutako arazo nagusiak

Euskal Autonomia Erkidegoan haurrek erakundeetan parte hartzeko dituzten organoak oso urriak dira, eta erabaki publikoetan eragiteko parte-hartze tresna gisa duten garrantzia ere nahiko mugatua da. Esparru horretako esperientziak proiektio urria dute, eta ez dira haurrek gizartean duten parte-hartzearen esparru gisa identifikatzen.

Ez da aurkitu haur edo neraberik, egiazko parte-hartze organo gisa parte-hartze organo horien izatea berretsi duenik.

Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko programek bi osagai nagusi dituzte: eskubideak eta betebeharrak sustatzea, alde batetik, eta partaidetza-praktiken garapena, bestetik. Alderdirik ahulena bigarren alderdi horri dagokio, hain zuzen. Eskubideen

hedapenean eta informazioan nahiko erraza da jende arruntarekin, kolektibo bereziekin eta haurrekin lan egitea.

arte-hartzearen esparruan, praktikak garatzeko beharrezkoa da parte hartzeko egitura egonkorrak izatea; baina, egiaz, esperientzia horiek zailtasun handiak agertzen dituzte eragileen artean aplikatu, koordinatu eta ezartzerakoan. Arrakastari begira, zer muga nagusi izan ohi dituzte?

- Parte-hartzea ikastetxeen bidez gauzatzen da, eta programetan ez dira berdin inplikatzeko batzuk eta besteak; batez ere, irakasleen interesaren eta ikastetxearen proiektuaren mende dago hori.
- Udalerrietako parte-hartze orokorraren esparruan, haurrei eta nerabeei zuzentzen zaizkien jardueren artikulazio eta koordinazio falta.
- Lanetan eta kontseiluetako parte-hartzean jarraipenik ez izatea.
- Proposamenen jarraipenean erakundeek jarrera ahula erakustea. Batzuetan, egindako proposamenekiko konpromiso falta ikusten da udalen aldetik, eta, horrela, dinamika parte-hartzailea amaitu egiten da eta izen ona galtzea eta frustrazioa eragiten ditu horrek.
- Haurren eta nerabeen parte-hartzeari buruzko prestakuntza-lan gutxi egin da ordezkari politikoen artean. Horren adibide ditugu, esate baterako, agerraldiak ondo ez prestatzea edota gaiari edo haurrei beraiei garrantzia kentzea.
- Ahulezia, parte hartzeko esperientzien sistematizazioan. Analisi eta sistematizazio faltak zaildu egiten du berorren eraginaren edota eraginkortasunaren jarraipena egitea, parte-hartzearekin lotutako balioetan lortutako garapena edo garatutako prozesuarekiko asebetetze maila ezagutzea.

“Ozenki”	“Parte hartzen denean, gauzak hobetu daitezke; uste dut gauzak hobetu daitezkeela, gure aldetik pixka bat jarritz, ezta?”
“Lotsa eraginez”	“Neska-mutilok parte hartu nahi dugu”. “Baina modu pratikoan, ez teorikoan”. “Bai, benetan entzuten digutela jakitea gustatu egiten zaigu.”
“Gogoan hartu”	Oro har, neska-mutilek ez dakite zer aukera duten adingabekoen gaitan eta udal-erabaketan parte hartzeko.



5.2 HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEAREN ESPARRUKO ZEHARKAKO EKINTZAK

Programa edota ekintzetan txertatzen diren zeharkako egitura eta ekintzetan daude oinarrituta ekintza hauek, bigarren mailakoetan. Proiektu edo ekintza baten barruan, parte hartzeko egiturak eratzen dira, baina egitura horiek proiektuaren osagai dira, eta beste langai batzuetan beste helburu batzuk lortzeko xedea izan dezakete.

EAEko erakundeek haur eta gazteei begira antolatutako jardueretan zeharkako partaidetzarako garatutako praktikak bildu dira atal honetan.

Gehienak jolas eta aisiaren esparrukoak dira, hezkuntzaren arlokoak, horietatik baitira haurren eta nerabeen garapen sozialerako gizartegune nagusiak. Erakundeek eta batez ere udalek haur eta nerabeen aisialdiaren inguruan ekimen ugari garatzen dituzte, eta espazio informal horien kudeaketan eta antolamenduan parte hartzea da horrelako proiektu askotan biltzen den xedea.

Komunitatearen esparru horietako parte-hartzea sustatzea parte-hartzean oinarrituta hezte da. Gune informalek haurraren hezkuntza integralean laguntzen dute, eta, horregatik, oinarri-oinarrizko eragileak dira gizar-te-partaidetzako egiturak sortzeko eta gizar-tearen eta herritarren ingurunean hobetzeko.

Ildo horretatik, haur eta nerabeen elkar-teen egiturak eta gazteleku, ludoteka eta horrelako tokietan jolasa eta jolaserako eskubidea garatzeko aukerak funtsezkoak dira haurraren aisialdia garatzeko, eta komunitatean sartzen eta parte hartzen lagunduko diote; gainera, balio demokratikoak eta inplikazioarekin lotutakoak ikasteko toki aproposak dira.

Aisialdian zeharka parte hartuz, hainbat lan-ildo eta funtzio gara daitezke, eta hauexek nabarmendu nahi ditugu hemen:

1. Garatzen diren jardueren eragina sustatzea, parte hartzen duten pertsonen interesetara egokituz
2. Elkar-teen mugimendua adingabeengana hurbiltzea modu aktibo batean, gizar-tea aldatzeko tresna den neurrian eta beren herritartasuna gararazteko
3. Haur eta nerabeak (eta haurrak babesten ari diren helduak) ahalduntzea, parte hartzeko eskubideari dagokionez
4. Parte hartzeko metodologiak garatzea eta taldeen artean sarean elkar babesteko eta lanerako sistemak sortzea
5. Taldeko bizimodua garatzen duten eta aldi berean aukera-berdintasunaren alde egiten duten jarduerak sustatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko zeharkako parte-hartzea hurbilagotik ezagutzeko helburuz, hainbat erakundetako teknikarien laguntza izan dugu, eta zeharkako lantresna gisa modu sistematikoan parte-hartze metodoak txertatzen dituzten eta haur eta nerabeei zuzentzen zaizkien jarduerari buruzko informazioa bildu da.

Lan horretatik, esperientzia esanguratsuenak bildu dira hemen. Ez dira guztiak, iturriak askotarikoak baitira udalerrri bakoitzean eta ez baitago parte-hartzean oinarritutako metodologiaren inguruko esperientziak biltzen dituen aurretiazko lanik, nahiz eta udal gehienekin jarri harremanetan.

Hala ere, jarduera ugari bildu dira, haurren eta nerabeen sustapenean esku hartzen duten profesional eta erakundeek parte hartzean oinarritutako praktikak hedatzeko ardura badutela erakusten dutenak.

• **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Jarduera: Gaztematika. Haur eta gazteen sustapenerako sistema.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: haur eta nerabeen sustapenean, erreferentziazko esparru kontzeptual eta metodologikoa, bai eta erreferentziazko antolaketa-esparrua ere.

Praktika parte-hartzaileak: sistemaren abiapuntua printzipio bat da: baldintza egokiak eta aukerak sortzea, hartzaile nagusiek eragin erreala izan dezaten beraiei dagozkien politikan eta jardueretan.

Nork parte hartzen duten: haurrek, nerabeek eta gazteek.

Non: Gipuzkoan

Gipuzkoako Foru Aldundia haurren eta nerabeen sustapenean erreferentziazkoa izango den kontzeptu-, metodologia- eta antolaketa-esparru bat lantzen ari da azken urteetan udalekin eta esparru horretan esku hartzen duten gizarte-eragileekin. Esparru horretan, hainbat jardura-ildo zehatu dira, oinarritzko sustapen-sare bat sortzeko. Zeharkako parte-hartzearen printzipioa oinarri-oinarritzko elementua da testuinguru horretan.

Foru Aldundiaren babesean udal-zerbitzuen sare horrek osatutako zerbitzu-eskaintza adingabeen etapak sustatzera zuzentzen diren askotariko zerbitzuak eskainiz gauzatu da:

- Haurrentzako zerbitzu balioaniztunak: 50 ludoteka
- Nerabeentzako zerbitzu balioaniztunak: 53 "Gazteleku"
- Gazteentzako zerbitzu balioaniztunak: 1
- Haur eta gazteen ekimenak babesteko zerbitzuak eta informazio-zerbitzuak: 22 bulego eta lurraldeko zentro bat

Guztira 324 lagun ari dira zerbitzu horietan lanean (kaleko hezitzaileak, teknikariak, informazioa emateko guneak...)

PARTE-HARTZEAREN IKUSPEGIA

Printzipio nagusia zera da: parte-hartzea ez da lehentasunez jarduera espezifiko bat, jarduerari eta baliabide orori berez lotzen zaion praktika bat baizik.

- **Zumaia**

Jarduera: Gaztegunea

Nabarmendu beharreko jarduera-ildoak: Gaztematika sareko zentro baten adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea, bai zerbitzuaren funtzionamenduan eta bai Zumaian garatzen diren jardueretan.

Nork parte hartzen duten: 13 urtetik 17ra bitartekoak.

Non: udalaren lokalean.

Zumaiko Gaztegunean nerabeei zuzentzen zaien sustapen-zerbitzua da, Gaztematika Gipuzkoako Haur eta gazteen sustapenerako sistemaren esparruan sartzen dena.

HELBURU ZEHATZAK

- Nerabeentzako zerbitzua lagun taldeentzako eta nerabeentzako topagune izan dadin ahalegintzea. Bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako balioak sustatzea.
- Nerabeek aukeratutako zaletasunak sustatzea, sormena lantzea eta ekimenak sustatzea.
- Nerabeen parte-hartze aktiboa sustatzea, bai zerbitzuaren funtzionamenduan eta bai Zumaian izaten diren jardueretan. Herriaren azpiegiturak eta gizarte-egiturak ezagutaraztea, eta beroriek erabiltzeko ohitura sortzea. Zumaiko elkarteak ezagutzea eta berorien arteko lankidetzak sustatzea.
- Arriskuak kudeatzeko baliabideak eskaintzea. Oro har, arriskuari aurrea hartzea.

NORENTZAT DEN

Bi adin-tarterekin lan egiten du zerbitzuak, eta adin-tarte bakoitzari egokitutako eskaintza egiten da: 12-14 urte eta 15-17 urte. Nerabeen hezkuntzan eta aisialdian ardurak dituzten zuzeneko edo zeharkako beste eragile batzuei ere zuzentzen zaie (gurasoak, irakasleak, kaleko hezitzaileak, herriko taldeak, etab.).

ADIERAZPENERAKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK

Dinamizazioaren zuzeneko arretako parte-hartzeari dagokionez:

Iritziak adierazteko, parte hartzeko eta erabaki garrantzitsuak hartzeko jarduerak egiten dira, horrek, nolabait ere, erantzukizunak hartzea eskatzen baitie.

• Tolosa

Jarduera: Elkartegintza – Topagunea

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: gazte eta nerabeen elkarrekin sustatzeko udal-zerbitzu baten adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: nerabeen elkarrekin mugimendua babestea.

Nork parte hartzen duen: 13 urtetik 17ra bitarteko nerabeek.

Non: udalean eta Topagunearen lokalean

Tolosako Udalak laguntza ematen die Tolosako gazteen elkarrekin, honako zerbitzu hauen bidez:

- Diru-laguntzak
- Aholkularitza
- Hedapena
- Bulegoko baliabideak: ordenagailuak, eskanerra, gillotina

a) Gazte elkarrekin zuzendutako diru-laguntzak: irabazi asmorik gabeko erakundeei, gazteen esparruan aritzen direnei, zuzentzen zaizkie.

b) Topagunea: gazteek biltzeko eta beren ideia eta proiektuak gauzatzeko aukera izan dezaten prestatutako ekipamendua. Gazte eta nerabeen elkarrekin erabil dezakete lokala, beren jardueretarako.

• Portugalete

Jarduera: Gazte Gela

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: gazte eta nerabeen elkarrekin zuzendutako aisialdiko zerbitzuen eta laguntzako adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: gazteen elkarrekin eta elkarrekin batean bilduta ez dauden gazte taldeei laguntza eta biltzeko tokia eskaintzen dien zerbitzua.

Nork parte hartzen duen: 14 urtetik 30era.

Non: udalaren lokalean

Zer da Gazte Gela?

Topagunea, lantegiak egiteko tokia...

Portugaleteko gazteek aisialdian dituzten beharrei erantzuteko helburua duen zerbitzu bat da. Parte-hartzean oinarritzen da berorren antolamendua. Gazteen ekimenak hartzen dituen eta abian jartzen laguntzen duen zerbitzua da, gainera. Gazte elkarrekin eta elkarrekin gabeko gazte taldeak ere hartzen dira bertan. Finean, gazteei zerbitzua emateko tokia da.

Zein dira gazte gelaren helburuak?

- Gazteei zeregin askotarako ekipamendua eskaintzea, aisialdian erabil dezaten.
- Jarduera-programa abian jartzea, nerabe eta gazteen garapen eta prestakuntzarako lagungarri den guztia kontuan hartuta.
- Gazte elkarrekin beren jarduerak bultzatzeko behar dituzten zerbitzuak eta baliabideak eskaintzea.
- Gazteen ekimenak hartu, babestu eta sustatzea

• **Andoain**

Jarduera: Gazte Lokala.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: Gaztelekuaren dinamikarekin lotutako bi dinamikaren arteko bereizketaren adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: parte hartzeko sistema formalak eta informalak.

Nork parte hartzen duten: 13 urtetik 18 urte bitartekoak.

Non: udalaren lokalean

Begiraleek neska-mutilak parte hartzera animatzen dituzten hezkuntzagune bat da, eta errespetuan eta heziera onean oinarritutako balioak txertatzea du xede.

Gaztelekuo jarduerak bi dinamika garatzen ditu:

- Lokaleko eguneroko dinamika: lagunekin eta dinamizatzaileekin egotera, eskolako lanak egitera, ordenagailuetan txatean jardutera, jolastera eta abarretara joaten dira gazteak.
- Antolatutako jarduerak: beste antolamendu bat dute, ezinbestekoa baita aurrez izena ematea eta horrek berak parte-hartzearen esparruan gutxieneko konpromisoa hartzea eskatzen baitu.

Parte-hartze formala eta informala jarduerak antolatzeko eta egiten diren proposamenak eta iradokizunak kontuan hartzeko garatzen dira bereziki.

Sexuari dagokionez, bertaratzen direnen artean nahiko orekatuta dago parte-hartzea. Mutilak nahiz neskak joaten dira. 12 urtetik 18ra bitarteko haur eta gazteei zuzentzen zaie zerbitzua, eta, batez beste, 13-14 urte dituzte partaideek. Adinaren batez bestekoak behera egin du, gazteen artean lokalen kulturak izan duen eraginarengatik.

• **Arrasate**

Jarduera: Berramesten.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: ludoteken proiektuaren berrikuntzaren adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: haurren eta auzokoen artean lotura parte-hartzaileak sortzen lan egiten da.

Nork parte hartzen duten: 11 urtetik beherakoak.

Non: udalaren ludoteketan

“Alkate jauna, ez dugu nahi ez zaburik, ez txirristarik, herria nahi dugu”

Sorkuntza-proiektu bat da. Kalea berreskuratu nahi da, jolasteko eta parte-hartzearen oinarritutako harremana sustatzeko. Txatxilipurdik garatutako proiektua da. Arrasateko elkarteak Txatxilipurdi, eta euskararen transmisioa eta haurrek eta gurasoek gizartearen duten parte-hartzea indartzea ditu helburu.

Ludotekak abian jartzen urte askoan ibili ondoren, dinamizazio-proiektu berri bat jarri da abian, “Txatxilipurdi” elkartearen babesarekin eta Gaztematikaren metodologian oinarrituta.

Parte-hartzeari dagokionez, garrantzi berezia ematen zaio ludoteketako batzarren bidez barneko parte-hartzea lantzeari, eta baita auzoko parte-hartzea lantzeari ere; horrela, parte-hartzearen esparruko jarduerak garatu dira auzoan (bilerak, inkesta...).

Lokal itxietako ludoteka-ereduari irtenbide bat bilatzeko eta eskolatik edota ludotekatik kanpo gizarteko beste gune batzuetan euskararen erabilera sustatzeko sortu zen "Berramesten" proiektua.

Herriko kaleak haurrentzat egokituta ez daudela abiapuntutzat hartuta (zirkulazioa, herriaren antolamendua), hiru eragin-ardatz aukeratu ziren:

- Udalaren ludotekak
- Gune publikoa (plaza, eskolarako bidea...)
- Haurren parte-hartzea

• **Astigarraga**

Jarduera: udalaren parte-hartze zuzena Gaztelekuaren bidez.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: Gaztelekuaren bidez udalak garatutako parte-hartze programa baten sustapenaren adibidea. Jaietako egitarauari buruzko kontsulta.

Praktika parte-hartzaileak: udaleko kultura-arduradunaren ekimena.

Nork parte hartzen duten: Gaztelekuko neskek eta mutilek.

Non: Gaztelekuan

Jaietako egitarauan nerabeei zuzendutako jardueren inguruan zegoen gabezia jabetuta jarri zen abian proiektua.

Kulturako arduradun teknikoaren ekimenez, Gaztelekuan jaietarako jardueri buruzko kontsulta bat egin zen. Atrakzioei buruzko taula bat prestatu zen, eta bi atrakzio aukeratu ziren; ondoren, bi atrakzio horiek kontratatu ziren herriko jaietan.

PARTE-HARTZAILEEN TIPOLOGIA

12 urtetik 14ra bitartekoak

• **Leioa**

Jarduera: Herrigune proiektua.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: Hezkuntza Komunitatearen estrategia-lanaren adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: foroak, ekitaldeak, laguntza-sarea...

Nork parte hartzen duten: haurrek eta nerabeei, eta laguntza eman dezaketen sektoreek ere parte hartzea lortu nahi da.

Non: udalerrian

2011. urtetik, Herrigune Leioa proiektua garatzen ari da Leioako udalerrian: parte-hartzearekin, ikaskuntzarekin eta iraunkortasunarekin lotutako komunitateko loturak indartzera zuzendutako ekintza hezitzaileak lantzen ari da.

Herritarrei eta, bereziki, haurrei eta nerabeei inguruaren eraikuntzan eta herriaren eguneroko bizitzaren hobekuntzan partaide aktiboak izateko aukera eskainiko dieten gizarte-prozesu berritzaileak sustatu nahi dira.

Nabarmendu daitezkeen parte-hartzearen esparruko esperientziak:

- Bizikidetzan: bizikidetzan-mahaiaren foroa.
- Ekintza hezitzaileen garapenean: ekotaldeak. Komunitateko ekintza hezitzaileen garapenean lan egiten duten 10 urtetik 17ra bitarteko boluntarioen taldea.
- Parte-hartze instituzionalaren garapenean: Elkar Hazi. Leioako Udaleko zinegotziek hartutako entzute-konpromisoa gauzatzea.
- Hezkuntza Komunitatearen garapenean: Zilborhestea, Haurrak Laguntzeko Sarea eta Irakale.

• **Balmaseda**

Jarduera: Gazte Plana idaztea.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: Gazte Plana eta aholkuak jasotzeko parte-hartzea oinarri hartuta, parte-hartze aholku-emailea sustatzeko proiektuaren adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: inkesta egitea.

Nork parte hartzen duten: 12 urtetik 30era bitartekoak.

Non: udalerrian

Gazte Plana idazten ari dira. Parte-hartzea kontuan hartu nahi da lan horretan, eta, horretarako, planean parte-hartze organo bat proposatzea erabaki da.

Zerbitzu horrek gazteen iritzia jasoko du inkesta baten bidez, eta lortutako emaitzak Gazte Plan berrian emango dira ezagutzera; gainera, egingo diren ekimenak ikuskatzeko, batzorde bat sortzea ere aurreikusi du.

BEGI – Balmaz programak atari bat sortu du, adierazpen- eta informazio-plataforma bat eskaintzeko asmoz.

• **Beasain**

Jarduera: Berritsu eta Txelotxe ludoteken zerbitzua eta Eizu Gaztelekuaren zerbitzua.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: aldi behingo programazioaren barnean, biltzar bidezko jardueren garapenean adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: jardueren programa definitzeko, aldi behin biltzar bidezko jardura egitea.

Nork parte hartzen duten: haurrek eta nerabeek.

Non: udalerrian

Aisialdi parte-hartzaile eta sortzaile baten bidez eta aktiboki parte hartuz, haurrei eta nerabeei heldu izateko prozesuan eta autonomia maila handiagoa lortzeko orduan laguntzea da ludoteken eta Gaztelekuaren funtzioa. Jarduera-proiektuan, parte-hartzearen antolamenduaren elementu formalak eta informalak zehaztea eskatuko zaio enpresa dinamizatzaileari.

Gaur egun, udala, herriko hainbat talderekin batera, parte-hartzearen esparruko prozesu bat lantzen ari da, kiroldegiko gazteentzako lokalen erabilera arautzeko.

- **Donostia**

Jarduera: zeharkako parte-hartzean oinarritutako udal-proiektua.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: proiektu edo jarduera espezifikoak abian jartzerakoan eta garatzerakoan, iritziak jaso eta emateko, antolatzeko eta kudeatzeko bide parte-hartzaileak ezartzeko proiektu sistematikoa.

Praktika parte-hartzaileak: metapartaidetzan laguntzeko komunitateak egindako lana.

Nork parte hartzen duten: askotariko eragileek.

Non: Donostian

Proiektu edo jarduera espezifikoak abian jartzerakoan eta garatzerakoan, iritziak jaso eta emateko, antolatzeko eta kudeatzeko bide parte-hartzaileak ezartzeko lanean ari da udaleko partaidetza-alorra. Horrela, proiektu bakoitzean, parte-hartzea zehaztuko da prozesuaren barnean, epe batean eta helburu zehatz batekin.

Zerbitzuen antolamenduari dagokionez: Gaztelekuen jardueren kudeaketaren parte-hartze eredia azpimarra daiteke; hiriko zenbait zentro, Okondokoa esaterako, Gaztematika ereduaren garapenean zentro pilotua izan da.

Jardueren eta zerbitzuen diseinuari dagokionez: udalak babestutako eta gazteek eta Antiguu auzoko kolektiboek beren kabuz kudeatutako zentro pilotu bat definitzeko, parte-hartze prozesu bat abian jartzen ari dira.

Prozesu aholku-emailei dagokienez: parte-hartze prozesuek ez bezala, informazio-prozesuek pertsonen eta kolektiboen iritziak jasotzen dituzte, iritzi horiek kontuan hartzeko, baina udalak ez du elkarren arteko akordio baten bidez iritzi horietara egokitzeko konpromisorik. Dinamika horren adibideetako bat da "Lonja eta beheko solairuetako bilera-lokalen" araudiari buruzko txostenaren eta proiektuaren idazketa.

Gurasoek beraiek antolatutako proiektua: Intxhaurgunea proiektua
Auzolanean eta parte-hartzean oinarrituta eta parte-hartzea sustatzen duten proiektuetarako diru-laguntzen babesean, haurrentzat gune bat sortzeko proiektua da. IZBE Intxaurreko Zaharreko Auzo Elkarrekin abian jarritako proiektua da.

- **Amurrio**

Jarduera: "Eskutik Eskura" kanpaina.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: parte-hartzea sustatzeko gazteek antolatutako kanpaina.

Praktika parte-hartzaileak: herriko gazte taldeak eta lokalak elkarrekin harremanetan jartzea.

Nork parte hartzen duten: nerabeek eta gazteek.

Non: udalerrian, Gazte Asanbladan

"Eskutik Eskura" kanpaina: gazteen parte-hartzea eta elkarren arteko harremanak indartzea ditu xede. "Amurrioko Gazte Asanbladak" sustatu du kanpaina. Aurreko hilabeteetan egindako gogoetetan eta lanetan, herriko gazteek elkarrekin harreman estuagoak izan behar zituztela ondorioztatu zuten. Kanpainari "Eskutik eskura" izena jarri diote.

Herrian dauden lonjen kopuru handia kontuan hartuta, haiekin harremanetan jarri eta jarduera komunetan parte hartzeko eskatzea da kanpainaren helburua. Beren jarduera eta erlazioa lonjetako hormetatik kanpo zabaltzea erabaki duten gazte ugari agertu dira kanpainaren jendaurreko aurkezpen-ekitaldira.

• **Vitoria-Gasteizko Udala**

Jarduera: Lagunkide programa.

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: "Hiri Hezitzailea" programaren barneko ekintza osagarrien adibidea; eskubideak sustatzeko programak eta parte hartzeko organoa izango dituzte ekintza osagarri horiek.

Praktika parte-hartzaileak: Internet, eskubideen batzordeak.

Nork parte hartzen duten: 10 urtetik 14ra bitarteko neska-mutilek.

Non: hezkuntza-zentroetan, Interneten, udal-aretoetan...

Erakundeen parte-hartzeari buruzko kapituluaren deskribatutako "Hirikoak" programaz gain, zeharkako parte-hartze metodoa duten beste programa batzuk ere badaude, besteak beste:

- Zure ahotsa: Internet bidez parte hartzeko sistema da, gaztetxoei interesatzen zaizkien gaietara buruz informazioa eman eta parte har dezaten askotarikoak bideak emanez.
- Eskubideen Batzordea: 9 urtetik 14ra bitarteko haurrei zuzentzen zaie, eta beren eskubideak eta erantzukizunak ezagutaraztea du xede; ikastetxeetan egiten dira, eta Gasteizko haurren errealitatea aztertzen da. Saio horietan ateratako ondorioak txostenetan jasotzen dira, ondoren, ideia horiek hiriko beste talde batzuekin partekatzeko. Taldean oinarritutako metodologia da, zuzena eta parte-hartzea bultzatzen duena. Saioak ikastetxeetako geletan edota adin horretako neska-mutilekin lotutako beste esparru batzuetan egiten dira.
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren urtemuga ospatzeko urteko jaialdia: jaialdi honekin haxe lortu nahi da:
- Eta zuk baduzu zer esanik? Gasteizko eta Europako beste hirietako haur eta nerabeen zuzendutako proiektua da. Proiektu horretan, hirietako ideia berriak diseinatzen dituzte. (10 urtetik 14ra bitarteko neska-mutilek, Alemaniako ikastetxeak -Stuttgart-, Frantziakoak -Dax- eta tokikoak).

• **Plentzia (Uribe Kosta)**

Jarduera: EMUK: Elektronik Mapa Uribe Kosta

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: parte-hartze irekiaren adibide bat da; bertan, haurren eta nerabeen ikuspegia jasotzen da generoaren ikuspuntutik, eta haurren eta gazteen autonomia sustatzea du xede.

Praktika parte-hartzaileak: udal-erri guztietako emakumez osatutako parte-hartze lantegiak; horietan, neska nerabeek ere parte hartu dute.

Nork parte hartzen duten: 14 urtetik 17ra bitarteko neskek.

Non: Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Tokiko Agenda 21 eta Berdintasunerako zerbitzuek herritarrek parte hartzeko hainbat proiektu jarri zituzten abian 2007an. Proiektu horien bidez,

emakumeen ikuspuntua txertatu nahi zen mankomunitate hori osatzen duten zazpi udaletako hirigintza-plangintzan.

Udalerrri guztietako emakumeekin parte-hartze lantegiak egin dira. Lantegi horietan, neska nerabeek ere parte hartu dute. Hauxe da prozesu horren emaitza: EMUK: Elektronik Mapa Uribe Kosta. Web-mapa parte-hartzailea da, herritar guztiei zuzendutakoa, eta, bertan, lantegietan lortutako ondorio guztiak biltzen dira. Iruzkina egiteko, argazkiak bidaltzeko, alderdi ahulenak kokatzeko eta beste hainbat gauza egiteko aukera ere ematen du.

- **Erreterria**

Jarduera: Irrien Lagunak Kluba

Nabarmendu beharreko parte-hartze ildoak: 8 urtetik beherako haurren parte-hartzearen adibidea.

Praktika parte-hartzaileak: euskara sustatzera bideratutako programekin lotuta.

Nork parte hartzen duten: haurrek eta gizarteko beste eragile batzuek (gurasoak, aisialdiko elkarteak...).

Non: ludotekan eta udalerrian

Irrien Lagunak Kluba Oarsoaldeko haurrei zuzendutako proiektu hezitzailea, herritarra eta euskalduna da. Umeak izango dira proiektuaren protagonistak, baina ez dira jasotzaile hutsak izango, gero parte hartuko duten egitarauaren diseinua ere egingo baitute.

Gizarteko jarduerak bultzatzea, euskal komunitatea trinkotzea, kultura eta parte-hartzea sustatzea, berdintasun-ereduak gizarteratzea eta praktikan jartzea eta herria biziberritzea ditu helburuak.

Oarsoaldeko herrietan garatzen ari dira proiektua, udalen laguntzarekin.

Proiektuaren helburuetako bat txikienei ahotsa ematea da. Komunikatzeko erabiltzen dituzten moduetan, beraien adierazpena bilatzea eta ulertzea.

Zenbait ohar parte-hartzearen esparruko zeharkako ekintzei buruz

Txostenean 15 esperientzia soilik jaso diren arren, horrek ez du esan nahi, noski, parte-hartzean oinarritutako jarduerak gehiago ez daudenik. Modu sintetikoan askotariko esperientziak biltzea eta errepikapenak saihestea izan da horiek hautatzerakoan kontuan hartu den irizpidea; oro har, haurren aisialdira zuzenduta dauden egiturek beren helburuetan parte-hartzea txertatuta dute, hainbat maila eta modalitatetan.

Haurren eta nerabeen sustapenean esku hartzen duten profesionalak edota erakundeek parte-hartzearen esparruko praktikak zabaltzeko duten ardura islatzen dute parte-hartzearen esparruan bildu diren jarduerak.

Hala ere, praktika horiek zabaltzeko kezka horrek garapen maila desberdina du neskei eta mutilen zuzentzen zaizkien jardueretan. Egitura horietako parte-hartzea modu formalean

eta antolatuan nahiz informalean eta naturalean antolatu behar da; baina, sarritan, parte-hartzearen garapenari buruzko mekanismo formalak ez daude jasota inon, ez eta garapen horren mugak edota etapak ere.

Haurrentzako eta nerabeentzako antolatzen diren jardueren mundu horretan lantzen da, zalantzarik gabe, parte-hartzea gehien; egiaz, elkarrizketatutako neska-mutilek azpimarratu dute beraiek parte hartzen duten askotariko jarduera horietan dagoela parte-hartze mailarik handiena (lagun taldea salbu).

Baina bada datu adierazgarri bat ere: % 30ek adierazi du parte-hartze maila txikia duten edo parte-hartzerik ez duten jardueretan parte hartzen duela. Jardueretan, parte-hartzearen esparruko praktikek garapen maila desberdina dutela adierazten du datu horrek. Parte-hartze mailarik txikiena kirol-jardueren esparruan hauteman da.

Eztabaidetan, argi eta garbi ikusi da parte-hartzea taldean konfiantza giroa lortzen denean soilik dela posible, zure iritzia buruz galdetzen dizutenean eta errespetatzen zaituztela sentitzen duzunean, alegia. Ez da nahikoa arduradunak parte-hartzera animatzea; ezinbestekoa da taldearen babesa eta errespetua sentitzea. Jarduera lagun artean egiten denean, parte-hartzea handiagoa da.

“Ozenki”	“Gehiago parte hartu behar dugu, bai, gustukoak ditugun jardueretan, hala nola futbol-taldean. Beharrekoa dugu hori zoriotsu izateko beharrezkoa dugu.”
“Lotsa eraginez”	“Bai, haurren iritzia kontuan hartzen ez den arren, haurrei parte hartzea gustatzen zaie.”
“Gogoan hartu”	– “Jardueretan, batzuetan, esaten duzu, bai...”. Bai, bai, jende jatorrarekin eta lagunartean zaudenean parte hartzen duzu, baina bestela, isildu egiten zara. – “Begiralearen arabera, besteen arabera...”



5.3. ESKOLAKO PARTE-HARTZEA

Txostena egiterakoan, ikastetxeetako parte-hartzea oinarrizko kapitulutzat hartu dugu. Eskola-esparrua da haurren eta nerabeen heziketan erabakigarriena den gizarteko erakundeetako bat. Ikastetxeetan, ikasleek parte hartzeko bideak garatzea oinarrizko elementua da bizikidetzarako eta eskolako estamentuek elkar ulertzeko; eskolan, funtsezkoa da parte-hartzean oinarritutako ikaskuntza.

Kapitulu honetan, prestakuntza-programen esperientzia batzuei buruzko atal berezi bat ere badago, eta ingurumenarekin lotutako gaiei buruzkoak dira bereziki; programa horiek ikastetxeetan lantzen dira, eta, udalekin batera, komunitateak parte hartzeko dinamikak garatzen dituzte.

5.3.1. Eskolako parte-hartzearen lege-esparrua

201/2008 Dekretuan jasota dago eskolako parte-hartzea arautzen duen araudia, eta hor jasotzen dira ikasleek elkartzeko eta informazioa erabiltzeko dituzten eskubideak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideen eta betebeharren artean, ikasleek elkartzeko duten eskubidea dago jasota. Ikastetxeek lokal egokiak utzi beharko dizkietela ikasleei ere ezartzen du araudiak, elkarteek modu iraunkorrean erabiltzeko nahiz unean uneko premien arabera erabiltzeko.

Ikasleek parte hartzeko duten eskubideari dagokionez, ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute. Horretarako, ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak eratuko dira, ikastetxe publiko edo itunpeko ikastetxe pribatu bakoitzak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian zehaztutakoaren arabera. Gutxienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera, maila eta talde bakoitzeko ordezkariak hautatuko dira, eta ordezkari horiek kide izango dituen kide anitzeko organo bat ere eratuko da.

Legeak ezarritakoari jarraikiz, ikasleen ordezkari izango direnak zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez hautatuko dira taldeko edo maila bakoitzeko ikasleen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz edo horren baliokideaz geroztik. Lehen Hezkuntzako ikasleak dituzten ikastetxeetan, Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak ezarriko ditu egokienak diren parte hartzeko mekanismoak.

5.3.2. Eskoletako parte–hartzea garatzeko praktikak

Legeak Hezkuntza Komunitateko sektoreek ikastetxeko kudeaketan eta gobernuan parte hartzeko duten eskubidea aitortzen duen arren, horrek ez du bermatzen legeen esparruko aurrerapen hori egiaz ikasleen taldeko parte–hartzeen kudeaketa–praktiketan gauzatzen denik.

Ikasleek, oro har, ez dute behar bezala balioesten ikastetxean parte–hartzea, eta beraz, parte–hartze organoei ez zaie garrantzi handiegirik ematen. Oro har, jendea ez da eskolako organoetan parte hartzen duten pertsonen garrantziaz jabetzen (ordezkariak), eta, batzuetan, sisteman duten parte–hartzea negatiboki balioesten dute.

Hainbat azterketek⁶ argi azpimarratu dute ikasleek, oro har, parte–hartzeari eta ordezkariak hautatzeko prozesuei buruz duten ikuspegi negatiboa; parte hartzeko praktikek oihartzun txikia izan ohi dute, eta aldaketa esanguratsuak egiteko aukerarik ematen ez duen inguru zurrun batekin topo egiten dute. Beharbada, hori ez zaio soilik ikastetxeetako zuzendaritzen jarrerari leporatu behar. Baina erakundeen antolamendu–arau eta erritmo zurrunak islatzen ditu: ahulagoa den gazteen parte–hartzeari ez diote ematen benetako lekunik, eta berehalakotasuna lehenesten dute.

Parte–hartze horretan esperientzia izan duten gazteek ere, nahiz eta erakundea hobeto ezagutu, beren helburuak lortzeko eraginkortasun mugatua dutela balioetsi dute, parte–hartzearen esparruko organoak eta parte–hartzeko baliabideak badaudela adierazi duten arren.

Iritziak emateko eta erabakiak hartzeko orduan ikastetxeetan parte–hartzea nola lantzen den gertuagotik ezagutzeko, galdetegi erdiegituratu baten bidez inkesta bat egin zen; ikastetxeetako parte–hartzearen esparruko arduradunekin edota Eskolako Agendaren arduradunekin harremanetan jarri ginen, eta 22 ikastetxek parte hartu zuten. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lanagatik eta erantzuterakoan erakutsi duten zinezkotasunagatik.

Eskolako parte–hartzea dekretu bidez araututa dago; horregatik, ikastetxeetan ikasleen parte–hartzea sustatzen duten programak edo jarduerak lantzen diren galdetutakoan, denek baietz erantzuten dute. Hain zuzen, ikastetxe gehienek ikasleen parte–hartzea sustatzen duten programak garatzen ari direla uste dute.

Ikasleen parte–hartzea sustatzera zuzendutako programarik garatzen du ikastetxeak?

BAI	90%	<input type="text" value="90"/>
EZ	5%	<input type="text" value="5"/>
ED/EE	5%	<input type="text" value="5"/>

⁶ "Vitoria–Gasteizko gazteen parte–hartzearen analisia" Vitoria–Gasteizko Udala, 2011ko iraila.

Baina parte hartu duten 22 ikastetxetatik soilik seik dute beren hezkuntza-proiektuan modu espezifikoan txertatuta ikastetxeko kudeaketan ikasleen parte-hartzea lantzeko eta sustatzeko modua.

Itxuraz, kontraesan bat dago ikastetxeetako curriculumean parte-hartzeari buruzko alderdia horren gutxik txertatuta izatearen eta parte-hartzea sustatzera bideratutako programak eta jarduerak lantzen dituzten galdetuta baietz erantzun duten kideen kopuruaren artean.

Parte-hartzea sustatzen duten jarduera motak aztertzerakoan ulertzen da kontraesan hori. Ikasleen parte-hartzea sustatzen duten jarduera gehienak jarduera espezifikoaren garapenarekin daude lotuta, hau da, ikasleek jarduera horretan esku har dezaten bilatzen dute, baina ez erabakitzeke egituretan eta ikastetxearen jardueran parte hartzea.

Irakasleek ikasleen parte-hartzea bultzatzen duten programez edota jardueraz hitz egiten dutenean, ez dira ikastetxeko kudeaketan izan dezaketen parte-hartzeari dagokion prestakuntzaz edo sustapenez ari, balioetan oinarritutako programez, euskara sustatzeko jardueraz, ingurumen-hezkuntzako programez, bizikidetzaz sustatzeko programez eta beste gai batzuez ari dira.

Soilik sei ikastetxek adierazi dute ikastetxeko kudeaketaren barruan parte-hartzearen esparruko jarduerak modu espezifikoan garatzen dituztela (ordezkariak hautatzea, ikasgelako zereginen erantzukizuna banatzea, ikastetxean ikasleek duten parte-hartzea ikastetxeko gobernu-organoen Antolakuntza eta Jarduera Araudian, hezkuntza-proiektuan eta curriculumean txertatzea).

Hala ere, ikastetxe horiek ordezkariak hautatzen badituzte ere, ez da aurkitu ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko duten eskubidea babesteko eta eskubide horri erantzun praktikoak emateko beharra espezifiko lantzen duen praktikan.

5.3.3. Parte hartzeko jardueretan oinarritutako eskolako programak

Esperientzia handia dago prestakuntza-programetan, ingurumenarekin lotutako gaiari buruzkoetan bereziki; programa horiek ikastetxeetan lantzen dira, eta komunitateak parte hartzeko dinamikak garatzen dituzte. Udalaren parte-hartzearekin lotuta dauden esperientziak bildu ditugu, garrantzitsua baita parte-hartzearen kultura sustatzera bideratutako jardueren esparruan horiek ere kontuan hartzea.

5.3.3.1. Eskolako Agenda programa

Eskolako Agenda programa ingurumenaren inguruko gaiak lantzerako bideratutako eskola-jarduera bat da, baina oso lotuta dago parte-hartzearekin.

Tokiko Agendaren baitan garatzen da, eta ingurumenaren alde lan egiteko aukera aparta eskaintzen die ikastetxeei, ikastetxerako eta udalerrirako jarduketaren proposamenak landuz.

• Eskolako Agenda 21

Nork parte hartzen duten: ikastetxeetako estamentu guztiek; bereziki, ikasleak dira protagonista.

Noiz: ikasturtean zehar.

Non: ikastetxeetan batez ere.

Zertarako: ingurumenaren iraunkortasunerako eta hezkuntza-kalitatea hobetzeko hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen parte-hartzean oinarrituta dago, eta udalerrriaren garapen iraunkorrean gizartearen parte-hartzea sustatu nahi du.

NOLA GARATZEN DA EA21 PROIEKTUA?

1. Antolamendua eta plangintza: tokian tokiko eta ikastetxe bakoitzeko antolamenduaren oinarriak finkatzen dira.
2. Sentsibilizazioa eta motibazioa: motibaziorako eta sentsibilizaziorako plan bat egiten da, eta, bertan, esparru horretan landuko diren jarduerak zehazten dira, eta baita jarduerak horiek zein esparruri eta sektoreri zuzenduko zaizkien ere.
3. Diagnostikoa: baliagarria da ikastetxearen eta udalerrriaren egoeraren hasierako irudi bat egiteko. Programaren hiru ardatzen inguruan egiten da: curriculumaren berrikuntza, kudeaketa eta parte-hartzea.
4. Ekintza Plana: lortu nahi diren helburuak eta horiek lortzeko garatuko diren ekintzak zehazten dira, kudeaketaren, curriculumaren berrikuntzaren eta komunitatearen parte-hartzearen esparruetan proiektua garatu ahal izateko.

EBALUAZIO-PROZESUA

Prozesu osoan zehar egiten da ebaluazioa, eta helburuen lorpen maila ezagutzeko du helburu. Udalerrietan erakundeek hartutako konpromisoen jarraipen bat ere egingo da ebaluazioaren baitan.

ZEINTZUK DIRA PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK?

Ikastetxeak: hezkuntza-zuzendaritzarekin koordinatuta, programa garatzeko baliabide pertsonalak jartzen dituzte.

Ikasleak: analisi-lanak egiteaz eta proposamenen garapenez arduratzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Zuzendaritza: programaren arduraduna da, eta programaren zati handi bat garatzeko diru-laguntza ematen du; udalerrian edota eskualdean programa aurrera eramateko behar diren baliabide dinamizatzaileak kontratatzerako bideratuta dauden diru-laguntzak ematen ditu bereziki.

Udalerriak: konpromisoak zehazten ditu prozesuan parte hartu duten ikasleekin.

2011 KO DATUAK

Parte hartu duten ikastetxeak: 475

Ikasleak: 200.231

Irakasleak: 18.578

Udalerriak: 129

Ingurugelako aholkulariak: 14

Zuzendutako aurrekontua: 4.189.258 €

NOLA LANTZEN DA KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEA?

Udalak ikasleen ordezkarien eta udal-erakundeetako ordezkarien arteko bilerak antolatzen ditu. Bilera horietan, ikasleen ordezkariak hainbat proposamen aurkezten dizkiete udaleko politikaren esparruko arduradunei, eta horiek, bileran bertan edota ondorengo komunikatu batean, zer konpromiso hartzen dituzten jakinarazten diete. Ikasturtearen amaieran edota prozesu berri bati ekiterakoan egiten den bileran, hartutako konpromiso horien betetze mailaren berri ematen die udalak.

Udalerrien eta irakasleen balioespina positiboa izan da. Ikastetxeen % 75ek baino gehiagok erantzun du Agenda 21 programak gizartean parte-hartzearen kultura garatzen asko edo nahikoa laguntzen duela (bai ikastetxe barnean, bai kanpora begira, hau da, komunitatera begira).

5.3.3.2. Parte-hartzea sustatzeko udalerriek bultzatutako eskolako programak

- **Vitoria-Gasteizko Udala – Proiektua: Hiretu Hiria**

Nork parte hartzen duten: 14 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilek.

Noiz: hainbat lan-saiotan.

Non: ikastetxean edo interes-taldeetan (lagunartea, jarduera-taldeak, elkarteak...).

Zertarako: parte-hartzearen inguruko hezkuntza-programa bat da, eta libreki hautatutako gai bat garatzerakoan parte-hartzea praktikan jarri nahi du.

Hainbat lan-saio egingo dira, inguruan dugun eguneroko errealitate soziala aztertzeko, eta horretarako, azaldu diren interesen arabera, gai bat aukeratuko du taldeak.

Errealitate horri buruzko ekintza bat diseinatzea eta praktikan jartzea da helburua. Foro bat ere badago, iritziak emateko, zalantzak argitzeko eta teknologia berrien bidez parte-hartzea praktikatzeko.

2011–2012 ikasturtean, 6 ikastetxek eta aisialdiko 3 taldek parte hartu zuten. Guztira, 17 talde osatu ziren, 3 aisialdikoak eta 14 Bigarren Hezkuntzakoak.

Parte-hartzaileak: 280 lagun

- **Barakaldo – Proiektua: Baso biziduna**

Nork parte hartzen duten: LHko 5. mailako neska-mutilek.

Noiz: martxotik maiatzera.

Non: udalerriko ikastetxeetan.

Zertarako: Eskolako Agendarekin lotutako iraunkortasunari eta parte-hartzeari buruzko programa

Kultura Saila 2003. urtetik ari da programa garatzen, Eskolako Agenda 21 sortu aurretik, hain zuzen. Haurrek ingurunean eta ingurune horretan hartzen diren erabakietan parte hartzea du helburu.

Dauden 20 ikastetxeetatik (publikoak eta itunpekoak) 18k parte hartu dute. Landu diren gaiak ingurumena hobetzera zuzentzen dira.

Proposamena horrela egituratu da:

- Proiektuaren abiapuntu gisa, 300 zuhaitz landatuko dira udalerriko hainbat gunetan.
- “Lan-koaderno” bat egingo da gidoi gisa, parte hartzen duten haurrei gogoeta egiten eta beren proposamenak lantzen laguntzeko
- Barakaldoko Haurren Asanblada egingo da; Lehen Hezkuntzako 5. mailako gela bakoitzak bi ordezkari hautatuko ditu (mutil bat eta neska bat), eta, guztien artean, azken proposamenak adostuko dituzte lan-saio batean.
- Proiektuaren Amaierako Jaia, Europako Aste Berdearen barnean.
 - Entzunaldi Publikoa: alkateak eta landu diren gaiekin lotura duten udaleko ordezkariak eta teknikariak Haurren Asanbladan parte hartu dutenei harrera egingo diete, horiek adostu dituzten proposamenen, hartutako konpromisoen eta hobetzeko egokiak iruditu zaizkien proposamenen berri eman diezaieten.
 - Hurrengo urtean edo ikasturtean, politikaren esparruko arduradunek gauzatu denaren berri emango diete.

- **Ezagutu Barakaldo**

Nork parte hartzen duten: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek eta DBHko ikasleek.

Noiz: Eskolaz Kanpoko Jardueren programaren barnean.

Non: hainbat jarduera mota egiten dira: ibilbideak, lantegiak eta gelako jarduerak.

Zertarako: ingurunea ezagutzeko eta elkartasuna nagusi den gizarte-eredu bat sendotuko duten balioak eta jarduerak sustatzeko

Ezagutu Barakaldo 97-98 ikasturtean sortu zen, Barakaldoko Udaleko Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ekimenez, Eskolaz Kanpoko Jarduerak programaren barnean. Oinarrizko bi helburu hauek zituen:

1. Barakaldoko ikasle ororen kultura aberastea, udalerrria hobeto ezagutaraziz.

2. Udalerriko ikasleekin lan egitea, bereziki hiru alderdi kontuan hartuta:
 - Ingurunea ezagutzea, gure nortasuna, izaera eta barakaldarra izatearen ideia eratzeko oinarrizko elementua baita.
 - Tokiko inguruneari buruzko informazioa ematea, gazteak beren auzoaren eta udalerraren garapenean parte-hartzera bultzatzeko.
 - Balioak eta jarrerak sustatzea, eta bere gizarteari, historiari eta ingurumenari buruzko errealitateaz jabetuko den gizarte-eredu adeitsu eta kritikoa indartzeko.

Jarduerak egin ondoren, ikastetxe bakoitzean Osoko Bilkura Txikia egiten da, eta, ondoren, ikastetxe bakoitzaren proposamenak Osoko Bilkura Txiki Nagusira helarazten dira. Azken hori arduratuko da proposamen horiek politikariei aurkezteaz.

5.3.4. Zenbait ohar eskoletako parte-hartze jarduerari buruz

Eskolako parte-hartzea dekretu bidez araututa dago; hala ere, parte-hartzeari buruzko ildo pedagogikoak ez daude definituta.

Ez da nahikoa legearen aurrean onartuta egotea; parte-hartzea benetan indartzeko, ezinbestekoa da eskolako estamentuek, gurasoek, irakasleek, hezkuntzaz kanpoko langileek, ikasleek eta gainerako erakundeek hori bultzatzea.

Eskolako parte-hartzea sustatzea ikaskuntza sozial eta demokratikorako tresna bat sustatzea da, eta horrek eskolako ikaskuntzaren metodologiaren zati izan behar du. Horretarako, ikasleek parte hartzeko normalean izaten dituzten zailtasunak aztertu behar dira, eta parte-hartzea bultzatuko duten estrategiak sustatu, Antolamenduaren eta Jardueraren Araudian txertatzeko.

Ikastetxe gehienek ez dute parte-hartzea hobetzeko modurik jasotzen sistematikoki. Kasu askotan, gainera, parte-hartze organoak eraginkortasun gutxiko organo ezatsegintzat hartzen direla esan daiteke.

Parte-hartzearen garapenak hezkuntzaren esparruan parte hartzeko kultura bat sustatzea eskatzen du, eta ezinbestekoa da ikasleek antolamendu-egituretan parte hartzerakoan eta horiek diseinatzerakoan izaten dituzten zailtasunak kontuan hartzea eta aztertzea, ikasleen kolektiboa ardazteko.

Neska-mutilei egindako elkarrizketetan, argi eta garbi azaltzen da ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko baliabideetan ikasleek duten esku-hartze txikia, eta esku-hartze hori, gainera, murriztu egiten da adinean aurrera doazen heinean.

Eztabaidan, maiz aipatzen dira gelako ordezkariak hautatzerakoan izaten dituzten zailtasunak eta sortu ohi diren egoerak. Oztopoetako bat helduei, irakasleari, aurre egiteak sortzen dien beldurra da; egia esan, ez da gainditu ezin daitekeen oztopoa, baina pertsona askok arrazoi horrengatik atzera egiten dutela azpimarratzen dute guztiek.

Beste oztopo garrantzitsu batzuk ere badaude, sarri errepikatzen direnak; egoera pertsonal gisa hartzen dira, eta kideen arteko harremanekin dute zerikusia. Oztopo horiek bi multzotan bereiz genitzake.

Oztopo-jarreraren lehenengo multzoa pertsonak berak bere gaitasunari buruz duen iritziarekin dago lotuta (“oso jende gutxi aurkezten du bere burua, ez dakielako nola funtzionatzen duen eta ez delako bere iritziak emateko gai ikusten”). Oztopoen bigarren multzoa beste ikasleek izan dezaketen iritziarekin dago lotuta (“Aurkezten banaiz, ez dakit besteek nitaz zer esango duten”)



Arazorik izaten al da ordezkariak aukeratzekoan?

- Bai, adibidez, lagunartean adosten dugu nori eman botoa; lagunik onenei ematen diezu botoa; gogoko ez dituzunei, berriz, ez diezu botoa ematen... Batzuetan, askotan, arazoak sortzen dira
- Baina, batzuetan, eztabaida ez da normaltasunez hartzen; ordezkaria aukeratu da, baina batzuk ez daude ados aukeratu izan denarekin, edo...
- Normalean irakasleek laguntzen digute, eztabaidarik ez sortzeko; baina ez dute eztabaidan parte hartzen, gure artean konpon gaitzean uzten digute
- Eztabaidak iritzi desberdinak kontrastatzeko erabiltzen badira, ez dira beti txarrak izaten; eztabaida parte hartzeko modu bat ere izan daiteke, zure iritzia emateko modu bat; askotariko iritziak daude, eta, beraz, normala da eztabaidatzea.

Galdetutako irakasleek uste dute lankidetzan oinarritutako lanean eta eskolan parte hartzeko ordezkariaren esparruan gaur egun lantzen dena baino gehiago landu eta azpimarratu beharko litzatekeela.

“Ozenki”	– “Jende asko ez da boluntario aurkezten, nola funtzionatzen duen ez dakielako, eta ez delako bere iritziak emateko edota besteen aurrean hitz egiteko gai ikusten; aurkeztuz gero, ez dakite zer esango duten beraietaz.”
“Lotsa eraginez”	– “Zaharragoak daudenean, beti garaile ateratzen dira.”
“Gogoan hartu”	– “Ikastetxeetan parte-hartzea sustatzeko, beharrezkoa da ikastetxeak horretarako baliabideak emateko laguntza-programak garatzea.”



6. HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA BEREN IKUSPEGITIK

Haurren parte-hartzeak lotura estua du oro har gizartean dagoen parte-hartzearekin. Haurtzaroan eta nerabezaroan gizarte-harremanak antolatzen dituen esparrua ez da esparru bakartua eta itxia, neska-mutilek eta nerabeek zuzenean parte hartzen dute gizartean nagusi diren paradigma ideologikoetan.

Esan behar da gizartean, oro har, parte-hartzeari dagokionez ikus daitezkeen mugei beste oztopo batzuk batzen zaizkiela neska-mutilen eta nerabeen kasuan, gizartean duten boterea txikiagoa baita.

Oro har, esan daiteke gizartean parte hartzeko beharra ondo ikusita dagoela gehiengoaren aldetik, bai parte hartzen duten pertsonen aldetik eta baita parte hartzen ez duten pertsonen aldetik ere. Beste kontu bat da parte hartzeko tresnen benetako garapen maila zein den, erabakiak hartzeko garaian eragiteko zer gaitasun duten eta pertsonen parte-hartzea noraino iristen den.

Haurren nahiz helduen kasuan, parte-hartzea gertatzeko hainbat baldintza bete behar dira: parte hartzeko egiturak izatea eta egitura horietan inplikatzeko jarrera subjektiboa edo objektiboa izatea.

Dena den, parte hartzeko egiturek beren funtzioa bete dezaten, bat etorri behar dute gizarteko taldeen ezaugarri kultural espezifikoekin. Horregatik, haurren eta nerabeen kasuan, parte-hartzeak eta parte-hartze hori garatzeko dinamikek adierazpideak izan behar dituzte kontuan, eta ez dituzte helduen adierazpideak erabili behar.

Haurrek gai “garrantzitsuetan” parte hartzea ezinezkoa dela pentsatzeko joera dute helduek, irizpide falta eta gogoeta egiteko gaitasun falta izan dezaketelako. Horren ondorioz, hainbat ikuspuntutatik parte hartzeko egokiak izan daitezkeen egiturak baztertzen dira. Esate baterako, ez dira aurkitu parte-hartze orokorreko esparruak, non helduek parte hartzeko esparruak eta haurrek edo nerabeek parte hartzeko elementuak erlazionatzen diren.

Gauza jakina da haurrek ez dituztela helduek dituzten adierazpide eta trebezia berberak, baina pertsona heldu guztiek ere ez dituzte gaitasun eta ohitura berberak. Neska-mutilek

eta nerabeek beren ideiak, beharrak eta proposamenak adierazteko modu desberdinak eta irizpide desberdinak dituzte.

Talde horien parte-hartzea sustatu nahi denean sortzen den lehenengo zailtasuna hauxe da: ez dakite haurrei begiratzeko eta entzuten. Komunikatzeko gaitasun falta ez da helduaren eta haurraren arteko harremanari dagokion arazo berezia, helduen munduan ere gertatzen da hori, baina, adingabeen kasuan, gaitasun falta hori agerikoagoa da.

Txosten honetan, 12 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta nerabeek erabaki-prozesuetan parte hartzeko aukerei buruz dituzten pertzepzioen alderdi batzuk jasotzeko ahalegina egin dugu. Haurtzarotik parte-hartzea ikusteko modura hurbiltzeko ahalegin bat da

6.1. HAURREN USTEZ, ZER DA PARTE-HARTZEA?

Elkarrizketaren lehenengo helburua parte-hartzeari buruz zer irudi dituzten jakitea zen. Bat-bateko erantzuna eskatzen denean, parte-hartzea zer den iradoki gabe, parte-hartzearen ideia ekintzan parte hartzearekin lotuta egoten da nagusiki, zerbait egitearekin, izena ematearekin...

Azalpen sakonagoa eskatzen denean, elkarrizketen erdian, gutxi gorabehera, elkarlanaren ideia agertzen da. Beste pertsona batzuekin batera parte hartzea zerbaitetan. Erantzun guztiak bi ideia hauetan multzokatu ziren.



Zuen ustez, zer da parte-hartzea?

- Zerbaitetan parte hartzea, jardueraren batean parte hartzea, jarduerak egitea
- Proiektu batean parte hartzea, zerbaitetan laguntzea, jarduera batean parte hartzea, laguntzea, taldean laguntzea, talde-lana

Bigarren maila batean, parte-hartzearen zentzua beste pertsona batzuekin elkarlanean garatutako ekintza bati lotzen zaio, eta, hala, elkarlanaren kontzeptua taldeari lotzen zaio hertsiki.

Iritzia emateko eta eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea urrutiago gelditzen da, parte-hartzean oinarritutako erabakiak hartzeko bat-bateko irudia ez da bat-batean agertzen.

Elkarrizketan parte hartzeko eskubideari buruz galdetu zitzaizenean agertu zen ideia hori; hor agertzen dira iritzia emateko prozesuetan parte hartzearekin lotutako elementuak. Hortik aurrera, elkarrizketetan zuzenean lotzen zuten parte-hartzea eta iritzi-adierazpena.



Zer da parte hartzeko eskubidea?

- Zure iritzia ematea
- Pentsatzen duzuna esaten uztea, pentsatzen duguna esan ahal izatea
- Pertsona guztien iritzia jasotzea
- Besteek esaten dutenari jaramon egitea
- Zure iritzia jendearen aurrean adieraztea, edo eztabaida batean ikastea
- Pentsatzen duguna esan ahal izatea
- Zure iritzia ematea eta besteek jaramon egitea
- Pentsatzen duzuna esaten duzunean, besteek barrerik ez egitea edo zure kontra ez agertzea
- Nahi duzuna adierazi ahal izatea, eta besteek errespetuz tratatzea

Iritzia emateko eskubidea erabiltzea iritzia emateko aukera izatea dela pentsatzen dute, baina, horrez gain, beste baldintza bat ere eskatzen zaio: besteek errespetuz hartzea. Elkarrizketa gehienetan agertzen den ideia orokorra da hori, parte-hartzea adierazteko eskubidearekin lotzen da, eta adierazteko eskubidea, berriz, errespetuarekin. Parte hartzeko eskubidea iritzi pertsonala ematea baino gehiago da, errespetuz tratatua izateko sentimendua izateari lotzen zaio.

Errespetu hori pertsona helduei eskatzen zaie, baina bereziki kideei, hau da, gainerako gazteei.

6.2 PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA BARNERATZEA

Parte hartzeko eskubideak adostasun orokorra lortzen du. Elkarrizketa guztietan, haurren eskubideei buruz hitz egiten entzun dutela esaten dute, eta eskubide horietako bat parte-hartzea dela.

Elkarrizketa gehienetan erantzuna baiezkoko soil bat baino izaten ez den arren, zenbait kasutan, baieztapen horrekin batera kontzeptu osagarriak ere adierazten dira.



Zure ustez, neska-mutilen eta nerabeen parte-hartzea errespetatu eta aplikatu egin behar den “eskubidea” da?

- Bai, jakina.
- Bai, helduek parte har badezakete, haurrek ere parte har dezaketela uste baitut.

- Bai, guztiok pertsonak garelako, eta helduagoak edo gazteagoak izan, eskubide berberak izan behar ditugulako.
- Bai, haurrak hala nahi duenean.
- Bai, haurren iritzia oso kontuan hartzen ez diren arren, hurrei parte hartzea gustatzen zaielako.
- Askotan esaten da eskubideak ditugula, baina beste askotan bost inporta

Lehenengo unean sortzen diren ideiek pertsona helduen eskubideekiko paralelismoa aipatzen dute: oinarritzko eskubideak pertsona guztiei dagozkie, pertsona horien adina edozein izanik ere.

Haurraren borondateari buruzko kontzeptua ere agertzen da: “Haurrak hala nahi duenean”. Beste pertsona batzuek gogoeta eszeptikoa egiten dute, eta bi kontzeptu lotzen dituzte: parte hartzeko nahia egotea eta parte hartzeko eskubidea erabiltzearen eraginkortasuna helduen boterearen aurrean. Horrekin lotuta, helduek adingabeen iritzia kontuan izaten dituzten uste duten esateko galdera bat egin zen:



Oro har, gizarteak eta erakundeek kontuan izaten dituzte pertsona gazteen iritzia edo interesak?

Ikuspegi positiboa, baina...

- Bai (hainbat elkarrizketatan baietz esaten dute hasieran, baina solaskideak honelako adierazpideak gehitzen ditu: Batzuetan, baina...)
- Bai, oro har kontuan izaten saiatzen dira, eta ahal baldin bada...
- Gizarteak bai, erakundeek ez

Abiapuntuko ikuspegi kritikoa helduekiko:

- Askotan ez dute jaramonik egiten.
- Ez, adin nagusikoei entzuten diete soilik. Helduei entzuten diete soilik.
- Ez, gure iritziek ez dutela balio uste dute.
- Ez, haurrek helduek dituzten eskubide berberak ez dituztela uste dutelako.
- Ez (hainbat).
- Ez. Itxurak egiten dituzte, irudi ona emateko.
- Noizean behin.
- Esan bai, esaten dute, baina egin ez.
- Alkateak, une horretan baietz esaten du, baina gero ez du egiten. Ez asko.

Oro har, helduen gizarteak haurren iritzia gutxietsi egiten duela uste dute gehienek; batzuen ustez, ez dituzte haurren iritzia entzuten, eta, beste batzuen ustez, haurrei kontsultatzen zaienean, helburua manipulatzeko edo itxurakeria izaten da. Beste batzuen ustez, berriz, helduak saiatzeko dira haurren iritzia kontuan hartzen, baina gehiengoak kontrakoa pentsatzen du.

Erantzunen egitura berbera jasotzen da haurrek eta nerabeek parte hartzeko duten eskubidea ezagutzen duten galdetzen zaienean.



Oro har, jendeak badaki adingabeek parte hartzeko eskubidea dutela?

- Bai, jendeak badaki.
- Normalean bai, baina egoera batzuetan ez.
- Esaten eta onartzen diren hitzetan ageri da, baina egintzetan ez du baliorik, ez da errespetatzen.
- Bai, haurrek ekarpen originalak egiten dituztelako.
- Bai, adingabeak izateagatik ez digute parte hartzeko eskubide gutxiago esleitzen.
- Normalean ezetz esango nuke, adingabeak direlako, eta ez da bidezkoa.
- Normalean ez, pertsona heldu batek dituen eskubide berberak ez dituelako.
- Ez oso modu aktiboan.
- Ez, eta eskubidea badute, ez da erabiltzen, emaitzarik izango ez duela pentsatzen baitute.
- Oro har, ez.

Kontzeptu nagusia hau da: eskubideak ezagutzen dira, baina ez dira aplikatzen. Gizarteko balioen artean dualtasuna gertatzen dela adierazten duten elementuak agertzen dira, eta dualtasun hori adierazitako printzipioen eta garatutako gizarte-ohituren artean gertatzen da.

6.3 PARTE-HARTZE ESPARRUAK

Parte hartzeko beste baldintza bat horretarako gogoia izatea da, horretarako aukera izatea, eta, bereziki, parte-hartzea bultzatuko duen gizarte-giro egokia izatea, bi elementu hauen konparazioaren/balioespenaren arabera egokituta: egoeraren egokitzapena eta gaitasun pertsonala. Parte-hartzea ahalbidetuko duen egitura izateaz gain, beharrezkoa da baita ere horren aldeko pertzepzio pertsonala izatea. Iritzi hori aldatu egingo da gizarte-giroaren arabera.

Familiaz gain, parte hartzeko aukera izateko gainerako egiturak gizarte-harreman nagusiak gauzatzen diren gizarteko hainbat esparrutan garatzen dira. Horren ondorioz, adingabeen gizarte-esparruetan oso egoera desorekatuak sortzen dira parte-hartzearen aurrean. Ondoko esparru hauek hartu dira kontuan:



Zuen ustez, non parte har dezakete adingabeek, non eman dezakete beren iritzia, eta zer neurritan egiten zaie kasu?

Gizarte-esparruak	Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez
Lagun taldean	15	82	3	0
Ikasgelan	10	50	40	0
Ikastetxean	0	30	60	10
Parte hartzen duzun jardueretan	20	60	20	10
Herrian edo hirian. Udalak kontuan izaten ditu gure iritzia	0	0	20	80
Beste erakunde politiko batzuk	0	0	10	90
Bankuak eta erakunde ekonomikoak	0	0	0	100
Komunikabideak	0	0	10	90

Lagun taldea da parte-hartze esparru egokiena. Esparru desegokienak “urrutikoak” dira, bankuak eta erakunde ekonomikoak, erakunde politikoak, komunikabideak eta udalak. Bi esparru horietan, bikoteen erantzunek adostasun maila altua lortu dute.

“Parte hartzen duzun jardueretan” deritzon atalean iritzi desberdinak daudela ikus daiteke, eta elkarrizketetan adostasun maila txikiagoa da galdera horretan. “Batuetan”, “kasuaren arabera” erantzuten zuten. Jarduera batuetan, iritzia emateko orduan parte-hartzea handia zela esaten zuten, eta, beste batuetan, oso txikia. Lagunekin egiten diren jarduera batuetan edo begiraleak hurrekin enpatia lortzen duenean balioespina altua da.

Taldean konfiantza lortzen denean, galdetu egiten dizutela eta errespetatu egiten zaituztela sentitzen duzu. Ez dago soilik arduradunak parte-hartzea animatzearen arabera, “kasuaren arabera” horrek ere ondoko hau hartzen du barnean: taldearen aldetik babestuta eta errespetatuta sentitzea. Jarduera ikaskideen artean edo adiskideen artean egiten dela pentsatzen dutenean, parte-hartzearen sentimendua handiagoa da.

Ikasgelan, iritzia zatituta daude: batzuen ustez, parte hartzeko giroa egokia da, eta, beste batzuen ustez, berriz, ez da nahikoa. Oro har, parte-hartzerik handiena tutoretzako eskoletan gertatzen dela uste dute gehienek. Bikotea bat ez datorren kasuetan, ondoko elementu hauen inguruko eztabaida sortzen da:

- Batuetan irakasle “tentelen” bat egokituz gero, ez du parte hartzen uzten, baina beste batuetan alderantziz gertatzen da, eta parte hartzen ez baduzu huts egite gisa hartzen dute.

- Beste batzuetan, gatazkaren bat gertatzen bada, esate baterako ikasleen arteko liskar bat jolastokian, bi bertsioak entzuten direla eta taldean aztertzen dutela azpimarratzen dute. Baina, batzuetan, iritziak eman ondoren, gauza aldatu egiten da, irakasleak esaten duena... Baina gutxitan gertatzen da hori.
- Hitz egiten uzten dizute, baina, azkenean, irakasleak hartzen du beti azken erabakia.

6.4. PARTE-HARTZEAREN INGURUKO USTEAK ETA ESPERIENTZIAK

Iritziak bizi izandako esperientziekin oso lotuta daude. Gainera, hainbat alderdi edo maila izaten dira uste horietan, eta pertsona horrek parte-hartzearen aurrean garatuko duen jarreran eragina dute.

Usteetan ikus daitezkeen lehenengo maila uste orokorre dagokiena da, normaltzat hartu behar direla uste dugunak, pentsatzen dena (uste arau-emaileak); bigarren maila batean daude parte-hartzetik atera daitezkeen ondorioei dagozkienak, hau da, hautemandako eraginkortasunarekin lotutakoak (jokabidearekin lotutako usteak); eta azkeneko maila, hirugarrena, parte-hartzearen garapena erraztu edo eragotzi dezaketen faktoreei buruzko iritziari dagokio, eta norberaren inguruko giroaren pertzepzioari eta gaitasun pertsonalari.



Zure ustez, parte hartzen denean gauzak hobetu daitezke? Horrelako esperientziaren bat izan duzue?

1. maila: parte-hartzea positiboa da

- Bai, bi buruk batek baino gehiago pentsatzen dutelako.
- Bai, ikasi egiten delako eta iritzi desberdinak sortzen direlako.
- Bai, hobetu daitezke. Ezta?...
- Bai

2. maila : hautemandako eraginkortasuna (niretzat eta besteentzat)

- Bai, gure aldetik zerbait jartzen badugu gauzak hobetu daitezkeela uste dut. Ez?
- Ezin dugu hobekuntzarik eskatu parte hartzen ez badugu. Ez.
- Bai, ikasi eta lagundu egiten delako.

3. maila: hautemandako errealitatea, parte-hartzea zaila da

- Bai, horrela ideia berriak adierazi ahal izango genituzkeelako, baina niri ez zait inoiz gertatu (2. elkarrizketa).
- Bai, zuk parte hartzea nahi duen pertsonaz gain, inguruko gainerako pertsonak ere kasu egin beharko liguketela uste dut (3. elkarrizketa).
- Bai, baina ez dut inolako esperientziarik izan (12. elkarrizketa).

- Batzuetan galdeketak egin dizkigute.
- Duela gutxi, azterketa batean: batzuek esaten genuen ez genuela horren azkar egin nahi, eta irakasleak baietz, baina guk atzeratu egin nahi genuen. Arrazoitu egin genuen, hiru azterketa genituen batera, ikasi beharrekoa asko zen, baina ez zuen ezertarako balio izan... Irakasleak esan zuen horrela hurrengo gaiarekin hasi ahal izango ginela, hurrengo ikasgaiarekin. Azkenean, berak nahi zuena egin zuen...

Honela sailkatu ditugu parte-hartzeari buruzko pertzepzioak:

- Lehen mailan: pertsona guztiak ados daude, parte-hartzea positiboa da.
- Bigarren mailan: hautemandako eraginkortasunari dagokionez, adostasuna erabatekoa da baita ere, ona da niretzat, eta baita besteentzat ere.
- Hirugarren mailan: hautemandako errealitateari buruzko iritzi desberdinak daude, baina, oro har, helduek botere handiagoa dutela diote guztiek.

Usteekin lotutako beste alderdi bat parte-hartzeari buruz dugun alde zurrerakoa da. "Oro har, pertsona gazteek parte hartu nahi dutela uste duzu?" galderari emandako bat-bateko erantzunek bi joera erakutsi dituzte: erdiek erantzun dute, oro har, pertsona gazteek ez dutela parte hartu nahi, eta beste erdiek baietz erantzun dute. Gazteekin eta gazteen parte hartzeko moduarekin lotutako pertzepzio desberdinak daude, beraz. Horrekin lotuta, bi ideia nagusi agertzen dira: motibazioa/motibaziorik eza eta parte hartzeko aukerak.



Zuen ustez, oro har, pertsona gazteek parte hartu nahi izaten dute? Nola parte hartu nahiko lukete?

1. Motibazioa: dibertigarria izan dadila

- Uste dut jende gehienak baietz. Jolasak, jarduerak, etab. eginez.
- Gehienek bai, baina modu dibertigarrian.
- Gauza batzuetan, motibagarriak eta dibertigarriak direnean

2. Motibaziorik eza:

- Ez (oro har) – Zergatik ez? Ez dakit.
- Ez, adingabeei zer egin behar duten esaten dietelako etengabe.
- Ez, ez dute parte hartzeko asmorik.
- Ez asko.

3. Parte hartzeko baldintzak. Beste faktore batzuk:

- Parte-hartze praktikoa, teoriaren ordeztasuna.
- Bai. Edozein modutan, entzuten dituztela sentitu nahi dute soilik.

- Modu onean, errespetua.
- Arrazoituz.
- Iritzia askatasunez eman behar da, edo eman beharko litzateke

Nola parte hartu nahiko luketen galdetzen zaienean, elementu gehienak motibazioarekin lotuta agertzen dira. Parte-hartzeak dibertigarria izan behar duela diote, adiskideekin batera, praktikoa, errespetuz egin behar dela, besteek utzi arte itxaron gabe, etab.

6.5. PARTE-HARTZEAREN AURREKO JARRERAK

Motibazioak lotura handia du jarrerarekin, hau da, jokatzeko prestasunarekin. Usteez gain, pertsonak hainbat jarrera garatzen dituzte parte-hartzearen aurrean: parte hartzeko asmora hurbiltzen edo asmo horretatik urruntzen gaituzten eduki afektiboak.

Jarrera bizipen pertsonala den arren, oso lotuta dago bere inguruan garatzeko duen aukerarekin, edo interesatzen zaizkion gaiekin. Oro har, elkarrizketatutako pertsona gehienek azpimarratu dute parte-hartzearen aurrean jarrera positiboa ez izatea parte hartzeko proposamenen interes eskasarekin lotuta dagoela, eta parte hartzen dutenek interesatzen zaielako egiten dutela.



Parte hartzeko aukera ematen denean, gazteek parte hartzen dute? Zure ustez, pertsona gazteak konpromisoa hartzeko prest daude, eragiten dieten egoeretan erantzukizunak hartzeko prest daude?

- Pertsonaren arabera da hori, pertsona batzuek ez luketelako inoiz konpromisorik hartuko, eta konpromisoa hartzen dutenek, interesatzen zaizkien gauzetan hartzen dute.
- Eskolan, jardueretan, bai, eragiten dietelako eta eurentzat onena nahi dutelako. Eskolan, adibidez.
- Interesatzen zaienean soilik. Batzuek bai, gehiengoak. Aukera ematen zaienean.
- Ez, gazteei bost axola zaielako dena.
- Salbuespenak daude, baina gehienek beste interes batzuk dituzte. Konpromisoa hartzea ez da ohikoa gazteen artean.
- Batzuek bai, bakoitzaren nortasunaren arabera. Hori bai, gaia interesatzen zaienean.
- Pertsona bakoitzak bere interesen arabera jokatzeko duela uste dut: politika, ingurumena, grebak... Jaramonik eginez gero, parte-hartzea handiagoa izango litzateke.
- Jolasetan eta kirolatan, entretenitzeko, edo jaiegun berezietan.

- Norberari interesatzen zaizkion jardueretan; adibidez, futbol-taldean.
- “Muturreko” egoeretan, besteei laguntzeko.

Oro har, gehienek diote parte-hartzean inplikatzearen aldeko jarrera pertsona bakoitzaren interesekin lotuta dagoenean gertatzen dela soilik. Parte hartzeko prestasuna jardueraren interesarekin lotzen da.

Erantzun gehienak bat datoz gauza batean: jarreraren garapena oso lotuta dago norberaren bizipenekin eta interesekin, ez dute parte-hartzea balio abstraktu baten moduan ikusten. Bestalde, parte hartzeko jarreraren garapenean ere erakargarria da parte-hartze hori adiskideekin egin ahal izatea.

Elkarrizketa batzuetan, bestalde, kontzientzia sozial nahiko handian oinarritutako jarrera-osagai bat agertu da. Bi bikotetan gertatu da bereziki, eta lau pertsonako taldean. Parte hartzeko eskubidea aldarrikatzeko sentimendua agertu da, eta parte hartzeko aukera onartzen ez bada ere, parte hartzeko eskubidea erabili behar dela esaten dute. Ziurrenik, galderaren formulazioak eragina izango zuen erantzunean: “Parte hartzeko aukera ematen denean...”.

Zehazki, ondoko bi ideia hauek jaso dira elkarrizketetan:

- Nire ustez, parte hartzeko ez dugu gure iritzia eskatu arte itxaron behar; iritzia emateko askatasuna izan behar dugu, zerbaitekin ados ez bagaude, zure ideiak emateko aukera izan behar duzu... –Gure iritzia eman behar dugu, ez bakarrik eskatzen digutenean...
- Iritzia ez da soilik inkesten bidez eskatu behar; edo helduek nahi dutenean bakarrik; egunero eskatu behar da iritzia, zerbait garatzen denean.... – Beharrezkoa da iritzia emateko bideak eta uneak izatea.
- (Lauko taldea) Badago parte hartzeko beste modu bat: manifestazioak. Gure iritzia emateko modu bat da hori baita ere... –Baina horrela hasten bazara azkenean dena gaizki irteten da. –Baina beste biderik ez dagoenean, beste modu batean egiten saiatu behar dugu... –Beste bide batzuetatik saiatu zarenean eta ezin denean... –Horregatik egiten dira manifestazioak...

Hiru kasuetan, iritzia emateko eskubidea aldarrikatzen da; gogoeta egiteko bi bide horiek kontzientzia sozial nabarmena erakusten dute, eta gure nerabeek ere adierazten dute hori..

6.6. PARTE HARTZEKO ORDUAN NORBERAK SENTITUTAKO HESIAK

Hesiak parte hartu nahi dugunean parte hartze hori aurrera eramateko oztopoak dira. Sentitutako hesi horiek aztertzeko, bikoteka puntuatzeko hainbat iradokizun eman zitzaizkien. Hurrengo koadroan, proposatutako alderdia (ezkerrean) eta jasotako balioespenak eta horiei dagozkien esaldiak (eskuinean) jaso dira.

Parte-hartzean modu aktiboan parte hartzea hitz egitearekin identifikatzen da, besteen aurrean gure iritzia adieraztearekin, eta horretarako segurtasuna falta zaigu.



Zuen ustez, zer arazo ditu zuen adineko jendeak parte hartzeko, horretarako aukera ematen denean?

Hesia	Balioespenak
– Lotsa, beldurra	Alderdi honek adostasun handia lortzen du, gehienek aipatzen dute, eta garrantzi handia ematen diote. – Bi gauzak elkarrekin doaz, lotsa eta beldurra sentitzen duzu. – Beste pertsona batzuen errespetu faltaren beldur zara, hitz egin aurretik zutaz zer esango duten pentsatzen duzu.
– Zer esan ez jakitea. – Zer sentitzen den jakitea, baina adierazten ez jakitea.	Bi alderdi horietan ere nahiko adostasun agertzen dute. Lotsa edo beldurra sentitzen zuten pertsona gehienek bi horietakoren bat esaten dute.
– Helduak daudenean, irabazi egiten dute beti	Helduen aurreko beldur hori hortxe dago, ez da hesirik handiena, baina gehienak atzera botatzen ditu horrek ere. –“helduak direlako eskubide gehiago dituztela uste dute, beti irabazten dute”.
– Errespetu falta beste pertsonen aldetik.	Ez dago adostasunik: batzuek garrantzia ematen diote eta beste batzuek ez. Errespetu falta gutxitan gertatzen dela adierazten dute gehienek, horretan ados daude, baina gertatzen denean min handia ematen du. Eta hor lotzen dute beldurrarekin.
– Gazteen artean, erabakiak elkarrekin hartzeko ohitura gutxi dago, eta ez diogu elkarri hitz egiten uzten...	Hesi hori ez dute ia adierazi. Zailtasuna da, baina ez hesia.
– Interes falta.	Gutxien adierazi duten hesia da.

Parte hartzeko orduan, lotsa da neska-mutilek aurkitzen duten hesi nagusia. Oso gutxik esan dute parte hartzea erraza dela, eta hori da faktorerik nabarmenduen⁷.

Alderdi horiek beste galdera batzuetan ere berresten dira. Elkarrizketaren beste zati batean, parte hartzeko orduan zer zailtasun ikusten dituzten galdetzen zaienean, hiru erantzun multzo ageri dira:

- Erraza da, ez dago hori egiteko arazorik edo zailtasunik; arazoren bat badago, “interes faltagatik” da.
- Lotsa, kritikatzeko beldurra
- Denbora-arazoak

6.7. PARTE HARTZEKO TRESNAK EZAGUTZEA

Elkarrizketaren amaieran, galdetu zitzaien ea bazekiten adingabeek udalaren gaietan parte hartzeko aukerarik bazuten, eta jarduera batzuetan parte har dezaketela erantzun dute soilik: kontzertuak, jaiak, aisialdiko jarduerak. Zenbait kasutan, kexak eta iradokizunak aurkezteko sistemak identifikatu zituzten.

Baina, gazte gehienak haurrek parte hartzeko foroak edo kontseiluak dituzten udalerrietan bizi badira ere (Gasteiz, Barakaldo, Donostia), edota udaleko partaidetzan esperientzia duten zentroetara joaten badira ere (Eskolako Agenda), ez dute haurrek eta nerabeek parte hartzeko tresnarik identifikatu. (Soilik elkarrizketa batean aipatu dituzte Haurren Parlamentuko osoko bilkurak, edo udalekoak).



Adingabeek udal kontuetan parte hartzeko aukerak ezagutzen dituzu?

- Bai, adibidez: jolasak, jaiak, jarduerak.
- Bai, festak, jolasak edo ospakizun garrantzitsuak.
- Bai, festak eta kontzertuak nagusiki.
- Bai, Gabonetan eta azoketan.
- Ez (hainbatek).
- Bai, legebiltzarreko ekitaldiak... – Eta udalekoak.
- Gure herriari buruzko kexak edo iradokizunak aurkez ditzakegu, besterik ez. (6. elkarrizketa)
- Bai, kexak eta iradokizunak aurkez ditzakegu. (7. elkarrizketa)
- Iradokizunak jasotzeko postontziak daude, bururatzen zaizkizun gauzak sartzeko, eta hori gazteentzat nahiz helduentzat da

⁷ Elkarrizketa-kopurua txikia denez, ezin dugu esan generoen artean desberdintasunik dagoenik, baina neskek gehiagotan aipatu dituzte “lotsa” eta “beldurra”. Eta interes falta mutilek aipatu dute gehien, baina ezin dugu ondorioz atera.

Beste esparru batzuetan ere ez dute parte hartzeko aukera ezagutzen.



Beste espazio edo esparru batzuetan parte hartzeko aukera dago?

- Pentsatzen dut baietz, esate baterako bingoan edo beste jokoren batean.
- Baliteke, baina gutxitan.
- Ez, ez asko.
- Ez, haurrek ezin dugulako gauza guztietan parte hartu.
- Segun eta zer gauzatan.
- Bai, baina ez dakit. – Zerbait egingo da...
- Bai, baina orain ez naiz gogoratzen.
- Ez dakit.
- Ez dakit, ikusi egin behar zer gauza den.

Elkarrizketetan, ea inoiz beren iritzia emateko edo zerbait taldean erabakitzeko Internet erabili duten galdetu zitzairen. Inork ez zuen halakorik egin, kontu pertsonalekin edo adiskideekin lotutako gaietatik at.



Internet edo komunikabideak erabiltzea parte hartzeko

Gehienek diote ez dutela inoiz parte hartu erakundeen parte-hartze foroetan, eta sartzen direnean jarduerari edo programei buruzko informazioa eskuratzeko egiten dute, edo ikastetxeko weba begiratzeko...

Horrekin lotutako hainbat adierazpen:

- Twitter-en, zure iritzia eman dezakezu argazkietan...
- Egunkarietan ere zure iritzia emateko idatz daiteke, baina ez dut inoiz idatzi, eta ez dut ezagutzen idatzi duen inor. Gehienek beren iritzia dute, baina ez dute idazten...
- Ez, ez dugu inoiz Internet erabili kritikak egiteko, ez gara inoiz erakundeen orrialdeetan sartu. –Beno, eskolako ariketaren batean agian...
- Nire irakasle batek irakurtzen zituen liburuen kritika egiten zuen Interneten.

Zenbait ohar neska–mutilek eta nerabeek parte–hartzeari buruz duten ikuspuntuaz

Iritziak ematerakoan parte hartzea kontzeptu arrotza da beraiantzat, parte hartzearen ideiak jardueraren batean parte hartzea esan nahi du. Bigarren maila batean, parte–hartzearen zentzua ekintzaren bat taldean egitearekin lotuta dago.

Iritzian parte hartzea, taldeko erabakietan eragina izateko gaitasuna eta eskubidea izatea, urrun dago haiantzat, zaila egiten zaie hori zehaztea, ez dute hurbileko erreferenterik.

Iritzia emateko eskubidea aipatzen denean, eskubide hori sentitzen dute eta izan nahi dute. Iritzia emateko aukera izan nahi dute, baina, horrez gain, beste baldintza bat ere eskatzen diote: errespetuz jasotzea. Gehienek pentsatzen dute adingabeen iritzia isilik dagoela helduen gizartean. Halaber, gehienek uste dute beraien iritzia, neska–mutilena, gutxietsi egiten dela helduen gizartean. Hainbat arrazoi ematen dituzte: ez dituztela entzuten; kontsultatzen zaienean itxurak egiteko egiten dutela, edo datuak manipulatu egiten dituztela.

Parte hartzeko esparru egokiena adiskideena dela uste dute. Ikasgelan eta aisialdiko jardueretan eta eskolaz kanpokoetan oso egoera desberdinak gertatzen dira. Arduradunak parte–hartzea bultzatzeak edo ez eragiten du, baina, horrez gain, taldearen babes eta errespetua sentitzearen arabera ere aldatu egiten da parte–hartzea.

Bestalde, gehienek ustez, parte hartzeko jarrerak lotura estua du bizipen eta interes pertsonalekin.

Baina, parte hartzeko interesaz gain, neska–mutilek ordezkari–karguak onartzeko aurkitzen dituzten hesi nagusiak lotsa, besteek esango dutenaren aurreko beldurra eta bere buruan duten konfiantza eza dira.

“Ozenki”	“Parte hartzea zure iritzia ematea da, eta besteek jaramon egitea”
“Lotsa eraginez”	“Iritzia ez da soilik inkesten bidez eskatu behar, edo helduek nahi dutenean bakarrik; egunero eskatu behar da iritzia, zerbait garatzen denean.... – Beharrezkoa da iritzia emateko bideak eta uneak izatea.”
“Gogoan hartu”	Ez dituzte ezagutzen iritzietan parte hartzeko edo erakundeetan erabakiak hartzeko bideak. Ez dituzte ezagutzen parte hartzeko gaur egun dauden sistemak, oso nabarmentasun txikia dute haurren eta nerabeen artean”



7. ONDORIOAK

1. Neska-mutilek eta nerabeek pentsatzen duten guztia esateko eskubidea dute eurei dagozkien gai guztietan. Eta esaten dutena aintzat hartua izan dadin ere. Epaimahaiak edo beste erakunde ofizial batzuek beraiei eragiten dieten erabakiak hartzen dituztenean, haurren eta nerabeen sentimenduak eta nahiak kontuan izan behar dituzte (Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioko 12. artikulua)
2. Une honetan dauden parte hartzeko ekintzek oso ezagutza txikia dute gizartean. Proiektzio urriko esperientziak dira, eta ez dira nabarmentzen haurrek eta nerabeek gizartean parte hartzeko esparru gisa. Ez dira aurkitu parte-hartze organo horiek benetan parte hartzeko organotzat jotzen dituzten haurrak edo nerabeak.
3. Hala ere, parte hartzearen esparruko zuzeneko ekintzetan parte hartzea oso modu positiboan balioesten dute berorietan parte hartzen duten haurrek. Beste pertsona batzuekin elkartzeko eta beste pertsona batzuk ezagutzeko guneak direla azpimarratzen dute. Ikastetxe desberdinetako neska-mutilak elkartzen direnean, parte hartzen dutenek esperientzia positiboak eskuratzen dituzte gizarte-harremanetarako abilezietan, ezagutzen ez dituzten eta beste kultura, jatorri edo pentsamolde bat izan dezaketen pertsonekin hitz egiteko ohiturak barneratzen dituzte.
4. Parte-hartze zuzenerako proiektuek hiriko aginteguneak agerian jartzen dituzte, eta parte-hartze prozesuan parte hartu duten pertsonak egindako eskariei erantzun egokiak emateko eskatzeko eskubidean hezten dute. Gardentasun-printzipioa eta agintariak erantzuna emateko betebeharra sustatzen dituzte.
5. Euskal Autonomia Erkidegoan parte hartzeko jarduera ugari daude. Parte hartzeko eredu instituzional protokolario bat finkatuta dago (Eskolako Agenda, udal-kontseiluak, aisialdian eta denbora librean parte hartzeko zeharkako jarduerak), baina parte-hartzea antolatzeko esparru metodologiko orokorra falta da, bai udal mailan, bai EAEko beste maila orokorrago batzuetan; halakorik egongo balitz, esparru hori nabarmenagoa eta ikusgarriagoa izango litzateke.
6. Gehiengoaren ustez, beharrezkoa da adingabeen artean zenbait balio sustatuko dituzten parte-hartze proiektuak bultzatzea: talde-lana, elkartasuna, errespetua eta heterogeneotasunaren balioa.
7. Parte hartzeko esparru sozio-juridikoa sortzeari dagokionez, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean oinarritu ahal izango litzateke,

lege hori baita haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduketa-esparrua; lege horrek, 14. artikuluan, parte hartzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubidea jasotzen du berariaz. Gaur egun, ez dago printzipio hori garatzeko esparru egokirik.

8. Parte-hartze prozesuak modu bateratuan baina malguan sustatzeko beharrari eta aukerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur eta Nerabeentzako Plana Lantzeko Esparru Programak, lau ildo estrategikoen barnean, haurren eta nerabeen parte hartzea sustatzeko ildo berezi bat ezartzen du, herritar aktiboak bultzatzeko.
9. Haurrekin eta nerabeekin konpromisoa hartu duten gizarte-eragile asko daude, haurrekin batera, parte hartzeko gizarte-eredu demokratikoak garatzeko lanak babesteko prest daudenak, haurrek beren beharrak eta irtenbideak proposa ditzaten.
10. Hezkuntzaren esparruan, parte-hartzearen kultura gaur egun sustatzen dena baino gehiago sustatzeko tresnak behar dira. Kontsultatutako irakasle gehienek uste dute baliabide gehiago eta berariazko prestakuntza behar direla parte-hartzea lantzeko.
11. Parte-hartzea gertatzen da konfiantzazko giroa lortzen denean, haurrek galdetu egiten dietela eta errespetatu egiten dituztela sentitzen dutenean. Ez da nahikoa parte hartzera bultzatzea, babes eta errespetu soziala sentitzea ere beharrezkoa da.
12. Haurrek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiltzea funtsezkotzat jotzen da, horien bitartez parte-hartzea bideratzen baitute eta beren iritziak zabaltzen eta partekatzen baitituzte. IKTen erabilera haurren eta nerabeen babesa eta lidergoa izango duten parte-hartze prozesuak bultzatzeko aukera bikain moduan ikusten da.

8. AHOLKUAK

“Parte hartzea zerbaitetan esku hartzea da, zerbait hori modu aktibo eta eraikitzailean aurrera eramateko”.

Parte hartzeko eskubidearen garapenak oso egoera desberdinak agertzen ditu EAEn, baina, oro har, euskal gizarteak ibilbide luzea egin behar du oraindik eskubide hori errealitate orokorra izan dadin eta haurren eta nerabeen ahotsa kontuan har dadin.

HAURREN ESKUBIDEEKIN ETA HAURREN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAREKIN LOTUTAKO IKUSPEGIA

- Nahitaezkoa da haurren artean zenbait balio sustatuko dituzten parte-hartze proiektuak bultzatzea: talde-lana, elkartasuna, errespetua eta desberdintasunaren eta heterogeneotasunaren balioa. Baina, aldi berean, esaten eta egiten denaren arteko dualtasuna handitzea saihestu behar da.
- Bultzatzen diren parte-hartze ekintzek koherenteak izan behar dute eta arretaz pentsatu behar dira; parte-hartzea eskaintzen bada, parte-hartze horrek elkarrekiko harremanean eta errespetuan oinarritu behar du haurren ekarpenei eta iritziei dagokienez ere.
- Beharrezkoa da une honetan dauden parte-hartze ekimenak ezagutzea eta koordinatzea, antolamendu instituzionalaren maila desberdinei erantzuteko aukera emango duen parte-hartze egitura bat sortzeko/lortzeko.

HAURREK PARTE HARTZEKO EAE-KO PROGRAMEN ETA ESPERIENTZIEN EZAUGARRIAK

- Parte Hartzeko Zuzeneko Ekintzak dauden arren eta baliabide askotan parte hartzeko prozesu metodologikoak aplikatu diren arren, ez dugu parte-hartzearekin lotutako esparru-eredu bat. Parte-hartzearen esparruan, praktikek benetan parte hartzeko egiturak izan behar dituzte; horregatik, esperientzia horiek zailtasun handiak izaten dituzte aplikatzeko garaian. Horiek bultzatzeko, nahitaezkoa da eragile guztiak koordinatzea eta inplikatzeko: familia, hezkuntza eta erakundeak.

EAE–KO HERRI–ADMINISTRAZIOEN ESKU–HARTZEA PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA EGIAZ GARATZEKO ORDUAN

- Nahitaezkoa da administrazioetan eta gizarte–erakundeetan haurrek eta nerabeek parte hartzeko kultura sustatzea. Beharrezkoa da parte–hartzea hainbat esparrutan bultzatzen erakustea; horretarako, familiak, hezkuntza– eta gizarte–eragileak eta erakundeak prestatzeko eta hezteko ekintzak abiarazi behar dira.
- Parte Hartzeko Zuzeneko Ekintzek, haurren ikuspegia administrazioiko maila guztietako gobernu–ekintzan txertatzeko helburua dutenek, oso ezarpen txikia dute gure artean.
- Toki edo udal mailan eta eskolan, parte hartzeko ekintzak hainbat sailen mende daude (ingurumena, hezkuntza, herritarren partaidetza, gazteria eta haurtzaroa...). Hala, esate baterako, udalerni berean egiten diren hainbat jarduerak –hala nola Eskola Agenda– eta herritarrek parte hartzeko foroek ez dute loturarik, ez dira osagarriak eta ez daude koordinatuta gaiak hautatzeko garaian, foroak antolatzerakoan etab.
- Udalaz gaindi, ez dago parte hartzeko ekimenen eta sareen komunikaziorako edo horiek bateratzeko eta koordinatzeko sistemarik. Alde horretatik, parte hartzeko organoak sustatzeaz gain, haurren eta nerabeen parte–hartzea bultzatzen duten parte hartzeko sareen ezagutza, jarraipena eta koordinazioa erraztuko duten tresnak diseinatzea komeni da. Baina, bestalde, beharrezkoa da baita ere ekimen horiek “helduen” parte–hartze organoetan txertatzea.
- Parte–hartzea eraginkorra izatea beharrezkoa da, hau da, udalaren funtzionamenduan ageriko eragina izatea. Haurren eta nerabeen parte–hartzea modu eraginkorrean aitortzeko formulak bilatu behar dira. Parte hartzeko prozesuak ondorio zehatzak sortu behar ditu denbora–epe jakin batean.
- Erakundeetan parte hartzeko programak eta programa metodologikoak osatu egin behar dira, eta haurren parte–hartzea bultzatu behar dute, esperientzia egonkorren eta iraunkorren bitartez, hala, horien jarraipena, nabarmentasuna eta sinesgarritasuna bermatzeko.

HEZKUNTZA–SISTEMAREN ESKU–HARTZEA PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA EGIAZ GARATZEKO ORDUAN

- Ikasleen parte–hartzea sustatzeko EAEko jarduera gehienak jarduera espezifikoen garapenarekin lotuta daude, ikasleak jardueran interesatuta egotea bilatzen dute, baina ez ikastetxeko erabaki–egituretan eta funtzionamenduan eragina izatea.
- Parte Hartzeko Zuzeneko Ekintzek funtzio positiboa dute, eta haurrek nahiz irakasleek modu positiboan balioesten dituzte; hala ere, kontuz ibili behar da, eta ez

dute protokolo hutsa izan behar, erraza baita arrisku horretan erortzea ideiak eta konpromisoen arteko erlazioa parekidea ez bada. Beraz, nahitaezkoa da erantzun errealak eta teknikoki arrazoituak ematea.

HAURREN BENETAKO PARTE-HARTZEA

- Parte-hartzea hurbilekoa izatea eta gai interesgarriak lantzea beharrezkoa da; haurrentzat garrantzitsuak diren gaiak landu behar ditu. Parte hartzeko egoerek ahalik eta errealenak izan behar dute, eta haurren eta nerabeen eguneroko bizitzatik ahalik eta hurbilen egon behar dute.
- Parte-hartzea nabarmena izan dadin, parte-hartzearen elementu sinbolikoak (kontseiluak, foroak...) eguneroko parte-hartzean bizitako prozesuekin (parte-hartze metodologikoa) lotu behar ditu. Hau da, parte hartzeko prozesu formalak eguneroko bizitako egitura eta elementu interesgarrietan integratu behar ditu.



www.savethechildren.es